



ARGIA

MAUTHAUSEN ASKATU ZUTELA 75 URTE

Euskal deportatuen historia ahaztua

22-26. orriak



Premia bereziko ikasleak pantaila atzean galduta

27 | HEZKUNTZA



"Planetak ez du negoziatzen, desazkundera egongo da bai ala bai"

30 | JOAN JOSEP BOSH



Dinamoa Sormen Gunea Azpeitian, nazionala eta euskaraz

44 | KULTURA

Itzultzaile neuronalak

Euskarazko testuen itzulpen azkarra



Sartu testua,
ahoz zein idatziz



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
USHMM

Iritziak

- 17 | DABID BOU
- 18 | MAIALEN BERASATEGI
- 19 | BEÑAT IRASUEGI
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | RUBEN SANCHEZ

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
- ARNAITZ FERNANDEZ
- 54 | BERANDUEGI



JOSU SANTESTEBAN

30 | JOAN JOSEP BOSH
Nafarroako Attac-eko kidea eta ekonomialaria elkarriketatu du Xabier Letonak. Aditu honek argi dauka: "Planetak ez du negoziatzen, desazkundea egongo da bai ala bai".

Elkarriketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
Etorkinei begira jarri dira laborantza intentsiboaren esplotazioarekin segitzeko
Jenofa Berhokoirigoin

12 | JOAQUIM DOLZ
"Gizartea lasaitu egin da euskararekin"
Miel A. Elustondo

22 | HISTORIA
Mauthausen: Euskal deportatuen hiltegia
Urko Apaolaza

27 | HEZKUNTZA
Premia bereziko ikasleak galduta
Mikel Garcia

34 | GIZARTEA
Maskara eraginkorra al da?
Jose Maria Paricio

36 | GIZARTEA | TALAIMENDIKO TXALETA
11 suite eta hamaika salaketa
Gorka Peñagarikano

39 | EUSKARA | "ADITU" TEKNOLOGIA
Hizketa testu bihurtzen du
Onintza Irureta

44 | KULTURA
"Dinamoa" sormen gunea
Lander Arretxea

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olosola, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





SALBUESPEN EGOERA IRAUNKORRA?

Orain gutxi manifestazio jendetsuak zeuden munduko hainbat tokitan (Irak, Txile, Ekuador, Kolonbia, Libano, Haiti, Katalunia, besteak beste). Egun batetik bestera, kaleak herritarrez hustu dira poliziek eta armadek okupa ditzaten. Logikoa, ezta? Akaso, agintariek diotenez, koronabirusaren aurkakoa ez al da "gerra" bat? COVID-19a meteorito baten gisan erori da protesten artean, eta oxigenoa eman die soken kontra ziren agintariei. Larrialdi, alarma, hondamendi, setio eta salbuespen egoerek isilarazi dute espazio publikoa. Salbuespen-egoera orok "normaltasun" bihurtzeko joera dauka, baina, benetako borroka erabakigarria izango da. protestarako espazioa berreskuratzeko egingo dena. Irudian: Libano, salbuespena. Pandemiaren erdian ere, egunero protestan ateratzen ari dira kalera klase politikoaren aurka.

📷 HUSSEIN MALA / ALAMY 🔪 AXIER LOPEZ

MOTZEAN

**Josu Urrutikoetxea aske
uzteko eskatu dute
nazioarteko 126 eragilek,
euskal preso politikoaren
bizitza "arriskuan" dagoela
iritzita.**

**50,8 milioi desplazatu
daude munduan, historian
inoiz izan den desplazatu
kopururik handiena.**

**Krisirik ez Amazon-eko
buruarentzat: 24 miliar dolar
irabazi ditu koronabirusaren
testuinguruan.**

**Milioika ikasle eta
irakasleren datuak
multinazionalen esku uzten
ari da online irakaskuntza.**

**300 entitatek
autokontsumorako
baratzeetan aritzeko
baimena eskatu dute
Nafarroan.**

**Zaldibarko zabor-jauziari
erantzuteko, diru publikotik
7,3 milioi euro gastatu dira
"presazko prozedura bidez"
enpresa pribatuei egindako
kontratazioetan.**

**Zubietan probak amaitu
gabe ere hondakinak
erretzea normaldu nahi
dute COVID-19aren alarma
probestuz.**



JOSE SENA GOULAO

Portugal eredu

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Espainiak apirilaren 30a arte milioi biztanleko 519 heriotza eduki dituen bitartean, Frantziak 369 eta Euskal Herriak 541... Portugalek 95 hildako baizik ez zeramatzan. Euskaldunok sufritu ditugun biktimen %17,5 besterik ez, edo nahi bada, koronabirusak hildako euskaldunak izan dira portugaldarrak bider 5,6. Zer egin ote dute guk baino hobeto?

Aipatu izan da Espainiara baino beranduxeago iritsi zela COVID-19 Portugalera, eta egia izango da, baina Frantziara ere beranduago iritsi zen eta horrek bakarrik ez dio balio izan Macronen gobernuari olatu beltzari hesia jartzeko. Portugalek gutxienez bi faktoretan aurrea hartu die Espainiari eta Frantziari. Batetik, salbuespen neurriak askoz azkarra-g hartu ditu: Alarma Egoera ezarri zuenerako, martxoaren 12rako, Espainiak 112 heriotza zeramatzan kontabilizatua, Euskal Herriak 13, baina Portugalik alerik ere ez.

Bigarren faktorea: garaiz eta era masiboan erabili dituzte birusa detektatzeko testak. Lisboako Medikuntza Molekularrerako Institutuak (IMM portugesezko sigletan) lan handia egin du martxoaren erdi aldetik aurrera PCR testak (beste batzuk bezain azkar-rrak ez, baina fidagarriagoak direnak) Portugalen bertan sortu eta agintarien eskuetan jartzeko. Azkenean, martxoaren 26tik aurrera koronabirus sintomarik zeukaten guztiei egin zaizkie testak Portugalen.

Martxoaren 13rako –egun horretan hil zuen COVID-19ak lehen pertsona Portugalen- ari ziren Osasunerako Mundu Erakundearen arauetara jarraituz PCR bat sortzeko lanean eta bi egun beranduago lortu zuten prest edukitzea: “Ez zegoen ezer asmatu beharrik. Kit horietarako erreaktiboak Portugaleko enpresek ekoizten dituzte. Eta oraintxe bertan 15 ikerketa zentro ari dira PCR probak prestatzen, gehi horretan ari diren laborategi pribatuak”, kontatu du IMMk. Zientzialari portugesezko presio egin zioten gobernuari testak populazio guztietan egin ahal izateko. Eta horrela, Portugal apala bilakatu zen munduan bere populazioa koronabirusaz gehien testeatu duten herrialdeetako bat.

Zerikusirik ez euskaldunok erakusten dugun itxura patetikoarekin. Portugalen martxoaren 15ean hasi ziren beren PCRa ekoizten eta laster susmagarri guztietara eta hauekin kontaktuan egondakoetara orokortu zituzten. Euskal Herrian EHUKo hainbat sailtako zientzialari sare batek “konfinamenduaren lehen astean” ekin ostean apirilaren 10ean zabaldu zuten PCR test propio bat ekoiztea lortu zutela, beranduago jakin zen beste bi edo hiru enpresa eta erakunde talde ere ari zirela prestaketa lan horietan... Apirilaren 20an oraindik zientzialariak, konpainiak eta instituzioak eztabaidan ari ziren testak erabat prest ote zeuden edo masiboki erabiltzeko zein motibo zegoen... Apirila-ren 27an EHUKo zientzialariek berrirori salatzen zuten jadanik prestatutako testak ez zirela era masiboan ekoizten eta... apirilaren 29an jakin dugu azkenean sinatu dutela EHUK eta Eusko Jaurlaritzak PCR probak egiteko hitzarmena. Sinatu bai, testak noizko orokortuko dituzten ordea... ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Lasterka



ARITZ GALARRAGA

Badu bere logika: berrogeita hamar egun itxita egon ondok, etxetik urrun, ahalik eta urrunen, korrika alde egin nahi izatea. Nik ere izan dut tentazioa, ez pentsa, are ibili naiz webguneren batean kiroletako arropa arakatzen. Baina dena dago nire kontra. Hasteko, ordutegia –goizeko 6etan katigatuta naukate maindireek; eta arratseko 20etan jada ez naiz pertsona–. Gero, korrikolari guztiak ateratzen direla batera –eta nire autoestimua ez luke jasango jendeak etengabe ezker-eskuin aurreratzea–. Eta, azkenik, eta batez ere, irudikatzen dudala nire burua, kanpotik, eta ikusten dudana irudia dela patetikoa. Gogoratu naiz Zatopek mitikoarekin, nola erretratatu zuen Jean Echenozek *Lasterka* eleberrian: “Kanon akademiakoetatik eta dotorezia-kezka orotik urruti, Emilek oso modu astun, etenari, torturatuan egiten du aurrera, guztiz kolpeka”. Baina Zatopekek behintzat karrerak irabazten zituen.

Gainera, korrika egite masibo hau ez ote den izango txarre-rako: ea zenbat bihotzeko eragingo dituen, ea izango den koronabirusa baino letalagoa –badakizue, sendagaia gaixotasuna baino okerragoa–. Nik horregatik erabaki dut korrikarik ez egitea. Horregatik eta, kontxo, probatuta daukat, kalte egiten didalako. Eta ohikoan nik diagnostikatzen baditut nire sintomak –eztarriko urradura, adibidez, hipokondriako banago: minbizia–, orain guri eskatzen badigute koronabirusaren sintomak autoebaluatzea –sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna–, zergatik ez dut gauza bera egingo kirolarekin. Zatopek, berriz: “Medikuek nahi dutena esaten dute, komentatzen du Emilek bare-bare, baina nik ez ditut maite”. Aldarrika dezagun, beraz, txapeldunarekin batera: “Nire medikua, neu naiz” –egiazko mediku bat behar dugun arte, noski–. Koronabirusa, patua, bizitza bera ari zait bizimodua aldatzeko aukera eskaintzen; eta, beste behin ere, aukera galdua izango da niretzat. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“JOLASA ETA HARREMANAK DEBEKATUAK BADIRA, ZERTARAKO IKASTOLAK IREKIRIK?”

SEASKAKO LEHEN MAILAKO IRAKASLE ETA LAGUNTZAILEAK

Maiatzaren 12tik aurrera Ipar Euskal Herriko ikastetxeak irekiko dituztela-eta, kritiko agertu dira irakasleak: “Haurrek ezingo dituzte jostailuak, margoak edo liburuak partekatu, haien artean metro bateko distantzia bermatu behar da, ezin dute elkar ukitu ez elkarrekin jolastu, baloiak edo bizikletak kendu behar ditugu, haurren arteko interakzioak ekidin... Ezin badute lagunekin jostatu, ezin badute harremandu, materiala kendua izan behar bada, espazioa mugatua... zein baldintza pedagogiko eta humanotan egongo dira 2 eta 11 urte bitarteko haurrak?”. 2020/05/03



Gastu militarra osasunaren aurka



JUAN MARI ARREGI

Koronabirusaren pandemia agerian uzten ari da sistema ekonomiko eta politikoak azken hamarkadetan zeri eman dio lehentasuna. Nahiago izan da –gobernu bakoitzaren aurrekontuek hala erakusten dute– defentsa militarrean inbertitzea osasungintzan baino (txertoak, osasun-materialak, arnasgailuak, maskarak, testak...), eta horrela ari gara ordaintzen gobernuek kudeatutako sistema kapitalistaren politiken ondorioak.

Izurriaren erdian, Bakearen Ikerketarako Stockholmeko Nazioarteko Institutuak (SIPRI) munduko gastu militarren azken datu ofizialak argitaratu berri ditu, joan den urtekoak. Hamarkada bateko gorakadarik handiena izan du. Defentsa militarreko inbertsio globala 1,9 bilioi dolarretik (1,75 bilioi euro) gorakoa izan zen 2019an; hirugarren urtez jarraian ondu da marka. AEBak dira lehenak ranking horretan, 732.000 milioi dolarrekin; Txinak jarraitzen dio, 261.000 milioirekin; eta ondoren datoz India (71.100 milioi) eta Errusia (65.100 milioi). Euskal herritarren zergak jasotzen dituzten Frantziako eta Espainiako estatuek 50.100 eta 17.200 milioi dolar gastatu zituzten, hurrenez hurren.

Testuinguru horretan, pandemiaren ondorioz sistema kapitalista aldatzera behartuta egon daitekeela planteatzea –zenbaitetik iradoki duten bezala–, txantxa besterik ez da. Orain, egoeraz baliatu eta galerak sozializatzen ari da. Aurpegi gizatiarragoa izan lezakete Kapitalak eta menpeko gobernuek beren lehentasunak beste batzuk balira, adibidez, defentsa militarreko inbertsio milioidun hori osasunera bideratuz. Baina ez gaitzen engaina, sistemak hor ere jarraituko du etekin handiena bilatzen. Orain galerak sozializatzen eta bihar irabaziak pribatizatzen. Eta hori guztia gobernuei esker, kudeatzaile bikainak baitira. ●



DANI BLANCO

Bai, zor publikoaz

XABIER LETONA BITERI

Bizitzen ari garen distopia honetan ez da samurra ezinbestekoa den utopia dosia jartzea gure ikusmolde eta jarreretan. Zorionez bada esperantzarako tarterik, baina baita kezkarako ere. Munduko langileen erdia inguru enplegurik gabe geratuko dela aurreikusi du Nazioarteko Lan Erakundeak, 2008ko krisi ekonomikoa txiki utziko ei du datorrenak...

Odola izozteko moduko aurreikuspenak, guztiontzat aski ezagunak, besteak beste behin eta berriz jakinarazten zaigulako botereak kontrolatzen dituen hedabideetatik. Orain arte gutxi aipatzen dira hitz madarikatuak, baina kukuka ari dira han-hemenka: austeritatea eta murrizketak.

Agintarien informazioaren kudeaketari dagokionez, koronabirusaren garaian zerbait ikasi badugu zera da: hamabost egunetik lehenago prestatzen da mezua –luzapena, umeak, kirola...– eta herritarrek prest direnean, agindua dator. Eta orain galdera: norbait entzuten ari da hedabideetan nola finantzatzeko den sortzen ari den gastu publiko itzela? Ez dira gizarteko dirudun eta aberatsak kontzientziatzen ari zerga berezien bidez diru gehiago jarri beharko dutela esanez. Ezta ere PFEZaren goiko mailatan zerga tipoak handitu beharko direla. Edo azkenean Tobin tasa indarrean sartuko dela finantza mundua zergapetzeko, eta paradisu fiskalen aurkako borroka COVID-19aren aurkakoa bezain zorrotza izango dela...

Badakigu herritarra nola kontzientziatzen duten egoera txarrean apiril arratsaldeko ekaitza bailitzan onar dezan. Eta dirudunekin berdin egiten ez badute, buruan horrelakorik ez dutelako da. Beraz, ez da gaitza imajinatzea krisi hau nork ordainduko duen berriz ere.

Botereak badu abantaila handi bat egoera honetan: pandemia baten preso gauzka gure etxeetan; bai, egoerari aurre eginez –zaintzak, erresistentzia kutxak, hausnarketak, kontzientziazioa...–, baina une bitxi honetan herritarren indar metaketa nola antolatu ondo jakin barik. Agintariak sermoian dioten gisan, denon artean eman behar diogu buelta egoerari, dudarik ez, baina ez denak berdin jarraitu dezan. Egoera hau aldatzeko behar dugu gehien dutenen dirua, publikoa eta komunitarioa indartzeko, besteak beste gehien sufrituko dutenak babesteko. Hori guztia akuilatzeke, beharko dugu asmatu nola jaitsi balkoietatik kalera oinarrizko kontu batzuk adostuta eta atarirako bidean galdu gabe.

Urtarrilaren 30eko greba orokorra ez zen garrantzitsua izan gizartea guztiz geldiarazi zuelako. Ederra eta esanguratsua izan zen, etorkizuneko aliantzak eta arrakastak nola eta non egituratu behar diren erakutsi zuelako. ●

Bizkaia

**ERRENTA
RENTA
19**

**MAIATZAREN 4TIK
DESDE EL 4 DE MAYO**

**ERRENTA ETA ONDARE AITORPENA
DECLARACIÓN DE RENTA Y PATRIMONIO**

 **Bizkaia**
egiten

ETORKINEI BEGIRA JARRI DIRA LABORANTZA INTENTSIBOAREN ESPLOTAZIOAREKIN SEGITZEKO

Munduko mapa monokultura intentsiboka antolatzen duen laborantza ereduak ezinbestekoak ditu lan indarra ahal bezain merke xurgatuko zaien langileak. Koronabirusak eragin mugen ixtea dela eta, lan-baldintza eta soldata kaskarrak onartzeko prest diren auzo herrietako sasoiariak ezin izan dituzte ekarrarazi lur-jabeek. Aterabide gisa, etorkinei bideratu nahi diete lana. Sektore horri begiratzeak laguntzen du ulertzen zergatik bapatean papergabeak kontuan hartzen dabiltzan europar estatuak.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Teresa Bellanova Italiako Laborantza ministroak zehaztearen beharra ikusten du: “papergabeen erregulartzea kontu ekonomiko bat da, baina soziala eta humanitarioa ere bai”. Laborantzaren sektoreko ekoizpena segurtatu ahal izateko, 270 eta 350 mila sasoiari artean eskas ukanki, 600.000 bat papergabeei egonaldi baimena emateko asmoa plazaraturik du Italiako Gobernuak. Lehen behakoan, lekuz eta jokoan kokaturiko adierazpena dirudi. Mediterraneo erditik Gobernu Kanpoko Erakunde batek doi-doi salbaturiko etorkinak porturatzeari begira uzkurkeria eta errefusa direlarik azken urteetako joerak, arras kontrako zentzura doan nahikunde dirudi. Alta, badirudi hori dugula azken aldi hauetako tendentzia: ortu eta negutegietako lanak segurtatu ahal izateko behar ditu etorkinak. Italiaren gisara, Frantziak, Espainiak, Erresuma Batuak, Alemaniak, Suitzak... hots, baratzegintza eta fruitugintza intentsiboa auzo herrietako lan-esku merke eta esplotagarriari esker segurtatzen dabiltzan estatuek. “Barne mailako deslokaziazioa” terminoarekin izendatzen du antolaketa hau Emmanuel Terray antropologoak.

Aurten ordea, koronabirusaren izurriteak eragindako mugen ixteagatik ezin izan dute. Ezin izan dituzte ekarrarazi Errumaniatik, Poloniatik, Tunisiatik zein Marokotik urtero datozen ehunka mila sasoiariak. Nagusi batzuk deklaratu gabe lanarazten dituzten papergabee-

kin ere ez dute nahikoa eta dena dela, ezin orokortu bide hori.

Laborantzaren kalifornizazioa deitzen zaio lehen sektorearen antolaketa horri: monokultura, lurralde bakoitzak espezializazio bat duela eta hori segurtatu ahal izateko eskubide guti bermatzen zaion lan-esku merkean oinarritutakoa. AEBetako Kalifornian garatu eredu hori mundu mailara hedatuz joan da, laborantza mundializatu arau. Elikadura burujabetzarekin –herri bakoitzak elikadura eskaerari bertan ekoiztutakoarekin erantzuteko gaitasuna eta aniztasuna– antipodoan.

LAN BALDINTZA ONARTEZINAK

“Sasoiari kanpotarrak sektore intentsiboenetan dira presente: laborantza gune bat espezializatzen eta industrializatzen denean, atzerritar eskulana kontratatze-ko kanal eraginkorrak plantan emanak dira: lansari eta lan-baldintzak onartzeko prest diren bakarrak direlako”. Horra zer ondorioztatzen duen Frédéric Decosse lan migrazioetan adituak.

Via Campesina sindikatua dabil langile hauen esplotazioa salatzen. Europako hainbat herrietan hamar urtez eraman-dako ikerketa lanetik atera zuen 2015-2016 urtean *Laborantza: migrante langile sasoiariaren esplotazio laboratorioa* txosten mamitsua. Dokumentuak argira dakar sasoiari andanaren errealitatea: tratamendu txarrak, soldata miseraleak eta txarreanean, ordainketa-ezak, duintasunik gabeko etxebizitzak, esku-

bide urraketak eta abar. Nola ez, pestizida eta intsektiziden artean lan egin beharra. Legaltasun osoan pairaturiko egoerak dira gehienetan, ordu kopuru batentzat behintzat deklaratuak izanki.

Hori horrela, hobeki ulertzen da zergatik etorkinei dei egin dieten gobernuak. Decossek dioen gisara, beste inork ez lituzkeelako baldintzak onartuko. Daukatena baino hobea izanki proposatutakoa, askok onartuko dute lana –erabat ulergarria dena–. Usaian auzo herrietako langileek egiten duten gisara, funtsean. Italiako laborantza ministroak aipatu alde ekonomikoa argia da, alde soziala eta humanitarioa ordea zalan-tzan jartzekoa. Italiaren gisa, Espainiak ere baimendu zuen apirilaren 7an migratzaileen kontratatzea eta Frantziako Estatuak ere du bide hori irekirik. Alemaniak ordea, mugen hestea lausotu eta sartzen utzi ditu gehiengoan Errumaniatik eta Poloniatik etorritako 300.000 sasoiariak, sarreran kontrol medikala eginez –ikustekoa ordea zer nolako kontrola izanen den: sukarra neurtzea? Testak egitea?–.

Frantziako Sena eta Marneko prefekturak etorkinei luzatu eskaera aztertu eta egoera horretan den botere-harremman bortitza azpimarratzen du Natacha Lubin kazetariak “Errefuxiatuak sasoiako eskulan gisa errequisizionatuak” (*Des réfugiés réquisitionnés comme main-d’oeuvre saisonnière*) artikuluan. Batetik, asilo eskaera egindakoei eta errefuxiatuei eskatu izanak, “Frantzia-



HAMAR MILAKA SASOILARIREN BEHARRA

ALEMANIAK MUGAK
IREKI DIZKIE KANPOKO
SASOILARIEI. ARGAZKIAN
AGERTZEN DENEZ,
BABES-NEURRIAK EZ DIRA
ERRESPETATUAK.

ko jendarteari begira zordun direnaren ideia dakar harekin” eta hortik “onartu besterik ez luketela egin beharko –haien bizia lanjerrean eman behar badute ere–”. Lanerako deia prefekturak, hots, erregulartzeak erabakitzen dituen egitura berak egin izanak ondoko galdera pausatzeraz darama kazetaria: “Zein da benetan asilo eskatzaileak duen askatasun tarteak? Indar harreman asimetriko batean gaude”.

Krisi sanitarioan, ondoko galdera ere da mahai gainean: Koronabirusaren izurritearen testuinguruan bermatuko zaizkie babes-neurriak? Eskubideak urratu-rik diren eremu horretan sinetsi daiteke nagusiek langileen osasuna lehenestea erabakiko dutela? Alemaniara zoazen bi milako bat sasoiari Errumaniako Cluj Napocako aireportuan metaturik ikusteak duda areagotu besterik ez du

egiten. “Mundu mailako konkurrentzia sistema orokortu batean izanki, agroindustrialak beharrezkoa du eskulan geroz eta flexiboagoa eta merkeagoa –dio Andaluziako SOC-SAT sindikatuko Nadia Azouagaghek–, horretarako Europar Batasunaren baliabide juridikoek ahalbidetzen dute lan legeria nazionalaren saihestea, beti bitartekarien mesedetara eta langileen kalteetara, batez ere etorkinak direlarik. Horrek dakar oinarritzko eskubideen urraketa sistemiko eta estrukturala”.

INSTITUZIOEK BAIMENDURIKOAK

Hiru aukera ditu nagusiak: gobernuek zabalduko bide legal eta administrati- boak –*contratación en origen* Espainiako Estatuan eta *OMI/OFII* kontratuak Frantziakoan–; bitartekari pribatuek irekitakoak, hauek ere legalak; baita bitartekari

informalek ere garatutakoak –demagun, Caporalato Italian–. Via Campesinak dioenez, sasoi bukaeran haien herri- ra itzultzeko gisan eta erregulartzeak saihesteko moduan antolatuta da guztia. Adibidez, hainbat lan kontraturen bu- ruan egonaldi baimenaren lorpena ahal- bidetu arren Espainiako Atzeritarren Legeak, Huelva probintziak lortu zuen laborantzaren sektorerako aukera hori ezeztatzen. Usu umea duten emakume ezkonduki bideratzen dizkiete lan-kon- tratuak, gehiago bermatzen dielako on- dotik haien herrira itzuliko direla.

Azken asteetan zabalduz doan me- zuari jarraikiz, kontsumitzaile gisa du- gun botereaz jabetu eta tokian tokikoa erostea dugu bidea, harri batez bi xori, bi zentzutara eragiteko: bertako laborariak sostengatzeko eta urruneko pentzeetako sasoiariaren esplotazioa errefusatzeko. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Joaquim Dolz

KATALANA, GENEVAN, EUSKARAREKIN KONPROMETITUA



HEMENGO GIZARTEA LASAITU EGIN DA EUSKARAREKIN, ETA BERRAKTIBATU BEHARRA DAGO



Eskolan irakasten diren hizkuntza guztietan ikasleak trebe izan daitezen lan egiten du Joaquim Dolzek. Genevan (Suitza) da beti lanean, baina noiznahi da gurean, bateko ikastaro, besteko jardunaldi edota biltzar. Orain hurrena, UEUk eta Elebilab-ek Gasteizen antolatutako ikastaroan izan ginen berarekin.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Sasoi batean, iragan mendeko 80ko hamarkadan, eman dezagun, hizkuntzaren jabekuntza aztergai zenean, elebitasunaz ari ziren ikertzaileak. Oraingo egunean, eleaniztasunaren gainean mintzorete batzuk eta besteak...

Jaio eta bi hizkuntzatan hitz egiten ikastea inoiz ez da oso gauza arraroa izan, askoz arraroagoa izan da, edo arraroagoa dela pentsatu izan dugu, txiki-txikitandik hiru-lau hizkuntzatan hitz egiten jakitea. Baina denborak irakatsi digu planetaren errealitatea eleaniztasuna dela, eta mugimendu migratzaileek ere horixe irakatsi digute:

herrialde guztietan ere hizkuntza kopurua gero baino gero handiagoa dela. Genevan lan egiten dut, eta, han, azkena bisitatu dudana ikastetxean ikasleek hitz egiten zituzten hizkuntzei buruzko inkesta egin, eta batzuek eta besteek hitz egiten zituzten hizkuntzak 60 ziren! Horrek esan nahi du, bistan da, zenbait ikasle hainbat hizkuntza ikasten ari direla aldi berean. Genevan bertan, nire ikasgelako ikasleen artean, inork ez zekizkien lau hizkuntza baino gutxiago, eta batez bestekoa sei hizkuntza jakitea zen. Munduko ertz askotan eleaniztasuna nagusitu da, eta hobeko dugu horretaz jabetu.

Migratzaileek batera eta bestera eramane dituzten hizkuntzez ari zara...

Bai. Eta iruditzen zait ez garela horrela jabetzen, migratzaileek dakartzaten hizkuntzak izango ez balira bezala jokatzeko baitugu. Eta, zinez, hizkuntza horiek hor dira beti, existitzen dira. Gasteizen bertan, 250.000 biztanle dira oraingo egunean, baina ni etorri nintzen lehenbiziko aldian 150.000 inguru ziren. Alegia, 100.000 horiek non edo nondik etorriak dira, eta, bistan da, beren hizkuntzak ekarri dituzte. Oraindik, Gasteizen, gaztelania da hizkuntza nagusia, baina hor da euskara ere, hizkuntza minorizatua izan arren, eta hor dira joan



Joaquim Dolz Mestre

1957, MORELLA
HERRIALDE KATALANAK



den aspaldian etorri diren hizkuntzak, hizkuntza asko etorri baitira. Batzuetan, hizkuntzaren barietateak, gaztelaniarenak, alegia, zeren eta Latinoamerikako biztanleek ez baitute gaztelania bera. Bestalde, hor dira magrebtarrak, eta Europako ekialdeko herrialdeetatik etorriak... Hemen ez duzue Genevako eleaniztasunik, hura bezain handirik ez, baina aldi bereko hizkuntza askoren jabekuntza, Gasteizen bertan, bizi-bizirik dago.

Nola gauzatzen da hizkuntzen irakaskuntza, hizkuntza anabasa horren erdian?

Batzuetan, modu anarkikoan, eta, bestezuetan, hizkuntza politika gutxi-asko egokien bidez. Bada diziplina bat glotopolitika izenekoa, hizkuntzen antolamendua makro mailan aztertzen duena. Gu, hizkuntzen irakaskuntzaren didaktikatik, mikro mailan ari gara gehienbat. Gure kezka da nola antolatu hizkuntza anabasa hori ikastetxe barruan, edota familian. Hizkuntzen erabilerari buruzko kudeaketa beti saia gaitezke hobetzen, dudarik gabe, nahiz eta neoliberalismoak esaten duen gauzak “berez” mudatzen direla. Hala ere, hori esatea ikaragarria da, gutxieneko kudeaketarik gabe hizkuntzak galdu egiten baitira, hau da, gizateriaren ondarearen parte bat galtzen da, gurea, gizarte osoarena, haur, gazte nahiz heldu, hango eta hemengo, aberasten

gaituena. Gasteizen bertan hainbat hizkuntza izatea bata bestearekin harremanetan, aberasgarria da, kanpoko munduarekin harremanetan jartzen laguntzen du, eta historikoki hemen ibili diren hizkuntzen ondarea ez galtzen ere laguntzen du.

Zein irizpide baliatu behar dira hainbat hizkuntzaren kudeaketa egokia egin ahal izan dezagun?

Hizkuntza politikan aditua banintz bezala ari zatzaizkit galdezka, eta erantzuten ari natzaizu, baina hizkuntzen irakaskuntzari buruz dakidana oinarri hartuta. Hainbat hizkuntzaren kudeaketa irizpideak... Batetik, aintzakotzat hartu behar da errealitatea. Horrek esan nahi du, adibidez, jendeak zer hizkuntza errepertorio duen jakin behar dela. Eta zer errepresentazio duen “bertako” hizkuntzak ez direnei buruz. Esan nahi dut: ez da gauza bera hemen aleman edo ingeles jatorriko familia bat bizitzen jartzea, edo marokoar familia. Gasteiza ekarri ninduen taxilariak, adibidez, modu positiboan hitz egin zidan latinoamerikar jatorriko migrazio oldeari buruz; aldiz, negatiboki, magrebtar jatorrikoaren gainean.

Arrazoirik eman zizun, argudiorik?

Zaude, zaude! Taxilaria bera Zamorakoa (Espainia) zen jatorriz. Taxilari hark magrebtarren errepresentazio negatiboa transmititu zidan, negatibo-



Hezkuntza Zientzietan doktorea, Geneva Unibertsitateko Hizkuntzen didaktika eta Irakasleen prestakuntzako katedraduna da. Hainbat libururen egile, zenbat-nahi dira han eta hemen zuzenduak dituen ikastaroak, emanak dituen hitzaldiak. Irakaskuntza eleaniztunaz Europan denik eta aditurik burutsuenetakoa. Argazkilari fina, ikusgarriak dira Facebook-en erakutsi ohi dituenak; tantaka-tantaka, lore bilduma zoragarria dio munduari eskainia.

tasun horren zioak adierazi gabe ere. Hizkuntzei buruzko errepresentazioa, hizkuntzei buruzko kontzepzioa baitezpadakoa da hizkuntzen kudeaketa egokia egin ahal izateko. Errealitatea hori bada, nik badakit, arrazoi zientifikoak eskuan hartu eta hizkuntza guztien errepresentazio egokia eraikitzen lan egin behar dudala, eleaniztasuna aberasgarri dela erakutsiz, hala norbanakoarentzat nola gizarte osoarentzat. Norbanakoari dagokionez, ikuspegi kognitiboaren arabera ere, hizkuntza bat baino gehiago jakiteak guztioi hobeto pentsatzen laguntzen digula esango dut. Gizarteari zabaltu beharreko mezuaz denaz bezainbatean, hizkuntza bi, hiru, lau jakiteak sozializatzen laguntzen digula esango dut ozen, garrantzizkoa dela jendeak ez dezan elkar jo, edo eskolako patioan haurrak bata bestearekin jolas daitezen. Bake soziala lortze aldera ez ezik, eleaniztasuna garrantzizkoa da sare sozial diren horietan inguruko hizkuntzak baliatu ahal izateko. Hizkuntza bat baino gehiago jakiteak ez du kalterik egiten, are gehiago, aurrekoak hobeto jakiten laguntzen du. Eleaniztasuna oinarrizkoa da gaur egun, funtsezkoa da pertsonen eta ikastetxeetako eleaniztasunak modu positiboan ikustea. Besterik da hori antolatzea, eta antolatzea zaila da, zeren eta helbururik behinena da hizkuntza horiek eskolan ikastea, baina eskolan 60 hizkuntza baldin badira, zailagoa da lantegia.

Eta, orduan, nola jardun hainbeste hizkuntza dabilzanean joan-etorrian batera?
Eskolan arabiera hitz egiten duten 20

ikasle baldin badituzu, adibidez, arabierazko ikastaroak antolatu ezinik ez dago, hizkuntza maila hobeto dezaten. Beste talde bat baldin baduzu Serbiatik edo Kroaziatik etorria, berdin, etxekoa garatzea izango da egitekoa. Europaren aholkuei jarraikiz, berriz, gutxienez hiru hizkuntza hitz egin beharko genituzke: batetik, etxeko hizkuntza, edo hizkuntzak; bestetik, herrialdean herrialdeko hizkuntza ofiziala, edo ofizialak, eta, hurrenik, atzerriko hizkuntza, edo hizkuntzak. Nire iritziz, antolamendu hori posible da. Ezin dela modu berean antolatu Gasteizen, Zumaian edota Lizarran? Jakina! Are, Gasteizen bertan ere, egoera ez da bat eta bera izango auzo batean edota bestean. Oinarrizko printzipioa izan behar da guztiok ere euskaraz ikastea, gaztelania garatzea, eta bestelako hizkuntzak ere ikastea.

Hizkuntzen egoera, ordea, ez da bat eta bera...

“

**Herrialde honetan hizkuntzen alde egin den esfortzua eredugarria da. 80ko hamarkadan hasi eta 2006 arte-
edo, gar eta mobilizazio sozial handia nabaritu nuen, erabateko konpromisoa, eta horrek ikaragarri lagundu zion euskarari”**

Ez, bada! Eta laguntza handiagoa eman beharko diogu zenbait hizkuntzari, eskolan egoki ikasten ez baldin badira eskolaz kanpo ez baitira behar bezala ikasiko. Hor-tik dator, adibidez, murgiltze eredua. Izan ere, horixe besterik ez da murgiltzea: euskarari aurrera egiteko era eskaintzea, laguntza berezia. Dakigunez, murgiltzeak ez dakarkio galerarik haurren gaztelaniari, alderantziz baizik: gaztelaniaren ikasketari ere emaitza onak eman ohi dizkio. Hemengo eredu sistemak, EAEkoak, bederen, hizkuntza batean edo bestean eskolatua izateko aukera ematen die gurasoei, eta hori luxu hutsa da.

HITZ EGIN

“Hizkuntzaren irakaskuntzaren lehen helburua funtzionala da, erabiltzea. Bigarrena, hizkuntzaren mekanismoak ezagutzea, erabilera hobetzen laguntzen baitu. Hirugarrena da hizkuntza ondarea ezagutzea. Funtsezkoa iruditzen zait Bernardo Atxaga irakurtzea, elezaharrak jakitea, euskaraz noiz hasi ziren idazten jakitea... Oinarrizkoena, beti, eta are gehiago euskararen kasuan, hitz egitea da”.

HITZEGIN II

“Euskaldun zahar askok gramatikarik jakin gabe hitz egiten dute. Gramatika inplizitu baten jabe dira, baina euskarak zenbat fonema dituen galdetuz gero, ez dakite. Berdin frantses hiztunak ere, ez daki frantsesak 21 fonema bokaliko dituela, eta, hala ere, primeran hitz egiten du frantsesez. Lehenengo gauza, garrantzizkoena, euskaraz hitz egitea da, ez dala galdu”.

Azken hitza

ANTON KAIFER

“Donostiako Euskal Mundu Bil-tzarraren kariatara etorri nintzen hona. Orduantxe konprometitu nintzen euskararekin, pertsonalitate handi bat tarteko zela: Anton Kaifer, sasoi hila, zorigaitzez. Berak gonbidaturik etorri nintzen, eta ezagutu nituen euskara aholkulariak, eta irakaskuntza ereduaren hasiera, eta irakasleentzako prestakuntza ikastaroak eman nituen... Harrezkero, tesi eta ikerlan bikain asko jarraitu ditut, eta, halaber, irakaskuntza esperientziak Hego nahiz Ipar Euskal Herrian”.

BABESLETTZA:



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera...

arnasa gara, euskaraz gara!

Zer esan nahi duzu “luxu hutsa” esanda?

Aukera modu hori guztiz bakana dela munduan, eskola pribatuen kasua besterik ez dela. Duela 40 urte hemen landutako ereduak, aldiz, aukera horixe ematen die familiei, eta, alde horretatik, uste dut euskal gizarteak pozik eta kontentu egon behar duela. Urteak joan eta etorri, jabetu gara eredu jakin bat besteak baino sakonago garatu dela, emaitza hobek ematen ari delako, eta horretan dira gurasoak ere.

Nola irakatsi behar da hizkuntza gutxitua?

Utzidazu ohar egiten: minorizazio prozesuak beldurgarriak dira, oro har, eta, beti, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera dago. Adibidez, nik, lehen hizkuntza, etxekoa, katalana dut. Euskara baino hurrago dago gaztelaniatik, eta, hizkuntza hurbilpen horrek, nahitaez, erraztasuna damaio jatorrizko gaztelania hitzulari. Euskara, berriz, urrunago zaio gaztelania hitzulari horri. Halaber, gaztelania hitzulari horri

zailago zaio alemana ikatea, katalana ikatea baino. Baina delako hitzulari horrek katalanaren errepresentazioa negatiboa baldin badu, alferrik ari gara, nahiz eta erraz ulertuko lukeen katalanez, ez dago erremediorik. Inork euskara baserritar hizkuntzatzat ikusten baldin badu, ezertarako balio ez duen hizkuntzatzat, nekez ikasiko du. Eta Gasteizen bizi baldin bada, adibidez, Zarautzen, Azpeitian edota Zumaian bizi izanda baino nekeago ikasiko du, herriotako kaleetan euskaraz ari baitira batzuk eta besteak, Gasteizen, Bilbon edo Donostian ez bezala. Alegia, egoera horiek aintzakotzat hartu behar dira.

Urteak daramatzazu atzera eta aurrera Euskal Herrian. Ikusi duzunaren arabera, zein duzu “errepresentazioa”? Zertan egin du aurrera euskarak, zertan ez?

Kar, kar... Gogoan hartu duzu errepresentazio kontu hori! Kar, kar... Beti indikatzaileei kasu egin beharrik ez dago, baina gauza jakina da, euskara-

ren ezagutzari dagokionez, zenbait urtez emaitza oso onak jaso direla, bai Euskadin eta bai Nafarroan. Azken urteotan, bestalde, badirudi gauza pixka bat lasaitu egin dela. Hala ere, herrialde honetan hizkuntzen alde egin den esfortzua eredugarria da. 80ko hamarkadan hasi eta 2006 arte-edo, gar eta mobilizazio sozial handia nabaritu nuen, erabateko konpromisoa, eta horrek ikaragarri lagundu zion euskarari. Orain, berriz, jendea hizkuntzen irakaskuntzari buruz edozer gauza esateko gai da, komunitateak ez du garai bateko ardurarik eleaniztasuna gauzatzeko eta hori negatiboa da. Haatik, zuhur jardun nahiko nuke, daturik gabe ari bainaiz hizketan, eta, edonola ere, ez dut irakurketa negatiborik egingo: hemengo gizartea lasaitu egin da, sistema bera ere lasaitu egin da, eta berraktibatu beharra dago. Besterik ez. Esate baterako, ikaragarria da Valentzian (Herrialde Katalanak) eragin duten berraktibazioa. Egoera guztiz zen penagarria, eta orain berriz, gar handiz ari dira irakasleak. ●

Amul been nit ku leegakul




ARGIA

Artikulu hauek erositako karpenei ekonomikoa egingo diozu **Bilboko Mbolo Moya Doole** elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

Eskaerak egiteko:

AZOKA.ARGIA.EUS
943 37 15 45

*Bidalketa gastuak 4€



KAMISETA
SALGAI!
15€*



Koronabirusa eta ikusezinaren indarra



DABID BOU
KAZETARIA

Diegok hiru urte ditu eta gaur auzoko plazak zapaldu ditu berriz ere. Duela sei aste oso bizilagun gutxik ezagutzen genuen bere izena, existitzen zenik ere ez genekien gehienok. Konfinamenduan egunero atera da balkoira, osasun-langileei txalo zaparrada emateko orduan, aitaren gitarra laguntzeko danbor txiki bat joz. Euren abestiekin auzoaren moralala altxatu dute eta itxaropen arrakala bat ireki dute.

Ziur Núriak ez duela inoiz ahaztuko. Hirurogeita hamar urte baino gehiago du eta berrogeialdian oso gutxitan utzi du etxea, zaborra bota eta janaria erosteko. Bere senarrak kardiopatia du eta sofán itxaroten du, bizitza arriskuan ez jartzeko. Biak beldur dira ez ote diren inoiz lehen bezala ibiliko, hankak mintzen dizkie hainbeste orduz geldirik egoiteak. Errepertorioa entzuteko orduaren irrikan egoten dira, hitz egiteko eta berriro babesteko, jakinik atzean uzten duten egun bakoitza bat gutxiago dela orain arte imajinaezina zen egoeran.

Kataluniako literatura errebelde eta borrokalariaren erreferente batek, Manuel de Pedrolak, *Indarkeriaren ekintza*-n deskribatu zuen nola husten zituen kaleak komunitate oso batek: dena geldiaraziz gobernatzen zituen erregimen tiranoa garaituz. Gauzen egoera iraultzeko greba orokor mugagabearen utopia begien itxi-ireki batean distopia bihurtu da, zeinetik ez garen borondatez soilik aterako.

Gure kalean erabaki
dugu gauza batzuk
ez direla inoiz lehen
bezalakoak izango.

Nahikoa da beste aldera
begiratzeaz elkar agurtzea
saihesteko, etxean ixteaz
axolagabekeriaren
birusa landatzeko

Ondo dakite hori Yanethek eta Alexiak, azken asteotan giltzapetuta bizi baitira zaintzen dituzten laurogeitaka urteko emakumeekin, etxetik eta maite dituztenengandik dozenaka mila kilometrora. Horren jakitun dira ere Cris eta Mar, bi ospitaletako ZIUetatik COVID-19-ren aurkako borrokaren lehen lerroan jarraitzen dutenak. Hor zeuden denak lehenagotik. Baina pandemia honetan ikusgarriak izaten hasi dira, bizitza sostengatzea ahalbidetzen duten keinu eta zeregin txikiei begiratzen ez zien jendar-tearen aurrean.

Gaur damu gara galdu ditugulako giza kontaktua, besarkadak, laztanak, mai-teen konpainia; etsaitasunezko agerto-

ki bihurtu dugun mundu honetan babestuta sentiarazten gaituztenak. Gure itsasoetako uraren kalitatea alde batera uztea erabaki genuen, harik eta gurutzaontziak lotuta geratu eta Veneziako kanalak arrainez beteta ikusi genituen arte. Begirada desbideratzen genuen Bartzelona inguratzen duten basoen abandonuarekin topo ez egiteko, baina basurdeak hirian sartu eta gogorarazi ziguten gure aztarnak suntsitu duela beren bizilekua. Mikroorganismo ikusezin bat agertu behar izan zen, ispiluaren aurrean jarri eta nahita baztertzen genuen guztia erakutsi ziezagun. Bizitzea egokitu zitzaigun garaiko paradoxak. Espezie baten miseria, kolpeka bakarrik erreakzionatzen duena.

Zortziak dira berriro eta leihora irten behar dugu. Erosotu gineneko normaltasun faltsua nagusi zenean gure balkoiak horma hermetikoak ziren, begiluzeetatik babesten gintuztenak. Orain parez pare zabaltzen ditugu, aire freskoa eta isiltasun gorgarria hausten duten hitzak sartzen uzteko. Gure kalean erabaki dugu gauza batzuk ez direla inoiz lehen bezalakoak izango. Nahikoa da beste aldera begiratzeaz elkar agurtzea saihesteko, etxean ixteaz axolagabekeriaren birusa landatzeko. Diegok ez du merezi, Núriak eta denok dakigu. Horregatik utzi diogu *Resistiré* abesteari eta orain, arratsaldero, *Bella Ciao*-ren notak aire-ratzen dira. ●

Spoilerrak behar ditugu



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ZUZENTZAILEA

PAULA ESTÉVEZ

Etxean itxita hainbeste ordu motel igaro beharraren beharraz, azken asteetan askori zail egin zaigu ez ikusi egiten segitzea etxeko armairu eta apaletako kaosari: oroz gaindikiko produktibitatearen gizarte honetan bekatu denez egonean egotea, eta alferputz eta kulpante sentitzen garenez minutu batzuk deskantsu ederrean emateagatik, prokrastinazioaren mamuari uxa-uxa egin eta Marie Kondoren espirituari amore eman diogu askok azkenean. Nik neuk, Aste Santuan.

Han nenbilen, zintzo eta santu, liburu-apaletan usnaka eta hautsarengatik usinka, eta hara non aurkitu nuen zoko batean Boccaccioren *Dekameron*-ren gaztelaniazko antologia bat, bere garaian geroko utzia eta azkenerako atzendua. Eta, urteko asterik erlijio-soenean egonik, liburu *bekatuzko* hari-ke ekiteko gogoa piztu niri; are gehiago Alianza argitaletxearen edizioaren sar-hitza leitu ondoren, antologiaren apailatzaile Gustavo Martín Garzorena: “1348. urte ingurua da, eta izurri-epidemia lazarri batek porrokatua du Florentziako hiria. Hainbeste dira hiltzen, ia astirik ez baitago guztiei lur emateko. Hobi komunak zabaldu dituzte, hilkutxa bakoitzean zenbait gorpu batera sartu,

erlijio-zeremoniak alfer-alferrik sarritu, eta horroreak hartu du bai kalea eta bai jendearen ohiko bizimodua”.

Gordinaren gordinez, Izurri Beltz deitu zitzaion milioika pertsona hil zituen gaitz hari, zeina itsasontzietako arratoi beltzek zabaldu ei baitzuten hara-hona. Gure pandemia hau, berriz, saguzar batetik sortu eta oinez, trenez, hegazkinez zabaldu dugu. XIV. mendeko izurri hari *beltz* esaten diogun bezala, zer koloretakoa ote da XXI. mendeko hau? Izurri Zuria agian: ez FFP2 eta halako maskaren kolorea delako soilik, ez antisepsia-aren sinboloa delako soilik, baizik agian, batez ere, munduko agintari askok zurikeriaz ezkutatu dutelako egoeraren larria eta neurri onartezin ugari zuritu dituztelako ekonomiaren eta bestelako interesen izenean; eta, zergatik ez airtortu, herritar asko ere zuri-zuri aritu garelako esaten ondo gaudela, yogari eta Netflixi esker lasai gaudela: Chesteronek aipatzen zuen “pesimismoaren kartzela” horretatik ihes egiteko modu zilegi bat, inondik ere.

*Dekameron*a-k, ordea, zurikeria ez baizik bizipoza dakar orriz orri, tituluz titulu. Eta hain zuzen titulu horiek beste zerbaitegatik ere ematen dute zer pentsatua, zeren, garai bateko beste

hainbat obratan bezalaxe, atalen izenburuak ez baitira labor iradokitzaileak, baizik luze orokontalariak. Adibidez: “Monferratoko markesak, oilo-oturretza baten eta hitz burutsu batzuen bidez, Frantziako erregearen amodio zorroa galgatu zueneko”, edo “Melkisedek judua, hiru eraztunen ipuin bat kontatuz, Saladinen tranpa arriskutsuari itzuri zitzaioneko”. *Spoiler* edo *izorrikiz* jositako izenburuak, horra. Ipuin haietan inportanteena ez baitzen intriga, zer gertatuko zen asmatzea, baizik kontatzea, kontaera, kontu-kontari denbora elkarrekin pasatzea, ikastea, entretenitzea.

Gaur egun, alderantziz: oro har ez dugu spoilerrik onartzen ez ikus-entzunezkoetan, ez literaturan. Izenburuek iradoki baino ez dute egin behar, eta sinopsi, trailer eta abarrek amu huts izan behar dute, fikzio-lanetan bederen. Errealitatean, baina, ziurgabetasunak bizi gaitu oraintxe, inoiz baino gehiago. “Hau dena bukatzen denean...” esan eta esan gabiltza, baina nola eta noiz bukatuko den ez jakiteak ardurtzen gaitu, maiz, pandemiak berak baino gehiago. Spoilerrak, spoiler itxaropentsuak behar ditugu Izurri Zuriaren garaiotan. ●



BEÑAT IRASUEGI IBARRA
KOOPERATIBISTA

Mutualismo berri bat

Normalitate berria deitzen dutenaren makinaria martxan dago, guk erabaki ez ditugun errealitate zahar eta berriak ahalik eta azkarren normalizatu ditzagun gure bizitzetan. Herritarrok jaso dugun lehen kolpearen ondoren etorriko da bigarrena, osasun krisia, zaintza eta eguneroko ekonomiaren krisi bihurtua. Zaila izango da gehiengoarentzat.

Zorpetzea omen da erantzuna. Diru merkearen uholdea datorkigu horretarako, baina merkea izateak ez du esan nahi debalde denik, eta dirua ere merkantzia bihurtu zenetik, zorpetzeak dependentzia dakar. Lanak eta zorpetzeak salbatuko omen gaitu, lotura bikoitz honek, inor ulertzeko gai ez den baina normaltasunez onartzen dugun ezinezko formularekin. Harreman ekonomikoen eta sozialen finantzarizazioa da eskaintzen zaigun bide bakarra, baina ez pentsa ez dakit zein botere urrunen kontua denik; eguneroko urgentziazko erabakietan dator, dosi txiki eta beharrari lotutakoetan, tokiko ekonomia suspertzeko planetan, gure enpresa edo elkarteetan arazoak eta erabakiak atzeratzeko orduan, baliabiderik gabe normaltasun berrira egokitzeako esfortzua egitean. Ordainak, gero.

Eta menpekotasun finantzarioa baino gehiago, interdependentzia ekonomikoa

balitz bide posible bat? Emantzipaziorako beharrezkoa da bide ezberdinen posibilitatea existitzea, eta, zorionez, datorkigun krisi askotarikoari erantzuteko ere bide ezberdinak badira. Mutualismoa da bide garrantzitsu bat, Euskal Herrian hainbat ekimenetan errotua; laborariek duela ehunka urte uztak eta etxebizitza bermatzeko antolatu zituztenetan, industrializazio garaian harreman komunitarioak galtzean gaixotasuna eta heriotzaren aurrean babestean, edo kooperatibismo industrialak erresilientziarako tresnak sortzean. Orain ere mutualismo berri bat sortzen hasi gara, krisi honi kolektiboan erantzuteko. Elkar zaintza eta erresilientzia oinarri du mutualismo berri honek, bizigarritasuna eta komunitatea ere. Diru-funtsak, ezagutzak, zaintza eta lana elkarbanatzen hasi gara.

Ekonomia sozial eraldatzaileko ekimenak, oraindik txikiak izanik ere, saretzen eta lurraldean zabaltzen doazen moduan, subjektu garrantzitsuak izango dira gure komunitateak eta herrietako ekonomia lurraldetua berreraikitzeako orduan. Jarraituko dut ARGIAko kideek eskainitako atal honetan proposamenak egin, azaldu eta zabaltzen. Bitartean, eraiki dezagun mundu berri bat, elkartasunean oinarritutako eguneroko (arraro) berria. ●

Ikasgaiak



UXUE APAOLAZA
IDAZLEA

Etxean itxita ei gaude, eta ez dira gutxi nor diren ikasten ari omen direnak. Azkenean dena da irudimen edo adimen emozional kontua. Batzuek handia daukatela uste dute, itxialdia jasateko, lana izateko (beste krisi batzuetan). Metro koadroak zenbatzea ahazten zaie.

Ez gaituzte etxean itxi, gure jabetza pribatuetan baizik (edo erabiltzeko baimena dugun jabetza pribatuetan, diruaren truke, senidetasun loturengatik...). Eta, noski, batzuek gehiago behar dituzte espazio publikoko metro koadroak haien irudimena eta adimen emozionala loratu dadin.

Esan dute konfinamendu honen ondoren gehiago ere etor daitezkeela. Ikas-

gaiei buruz ere hitz egin digute. Eta niri bat geratu zait. Hurrengorako pilatu metro karratuak, erosi, zureganatu, eduki behar duzun guztia (eta nahi duzunetik ahal bezain beste), zure arazo nagusia betikoa izan dadin: aspertu egiten zarela. Azken buruan, gure jabetzak izaten amaituko dugu beti. Ezin duzula? Tira, ba heroi bat izango zara, edo arduragabe bat, edo preso bat, edo zerraldo ahaztu bat, edo...

Ez daude formula magikoak, esango dit jende helduak. Ba niri hitz magiko bat etortzen zait ametsetan, hemen grazia handia egin zigun bideo batean Venezuelako presidente batek grazia handiz ahoskatzen zuena. ●

eliburutegia.(d)eus



RUBEN SANCHEZ BAKAIKOA
IRAKASLEA

Dagidan, lehenik eta behin, oihutxo bat etxealdiko basamortutik euskal oasira. Ene oihua irudikatu nahi dut aro distopiko honetako egun buruzurian –iluntzeko zortzietan–, nola kolektibo egin eta txistu suntsigarria bilakatzen den. Orduan, *streaming* ikus-entzunezkoen arloan euskararekin bizi gaituen lehortea eta itxaropen-ez basamortuzkoan zirimiru hasi, eta... *to be continued*.

EAEko herritarra izaki, egin nintzen eliburutegikoa. Filmoteka moduan izugarria da, Bingen Zupiriak dioenez, estatuko liburutegi digital handiena, eta debaldeko erabilera du. ‘Denok’ (=ahal dugunok) Netflix, HBO, Filmin eta abarretakoak egiten gabiltzan honetan, garrantzitsua da kultura denon eskura eta debalde aldarrikatzea; alde horretatik oso ondo.

Egin nuen lehen bilaketetako bat, umeeekin ikusteko *Esmeralda oihana* izan zen, gogoan nuen ETB1ean ikusi izana. Nire etsigarri: eliburutegian jatorrizko bertsoan eta gaztelaniara bikoiztua besterik ez nuen topatu. *Paradisu zinema* euskarara bikoiztua eta azpiti-

Sumisioaren azkena
dagoeneko euskaraz
sortua edo euskaraturik
dagoena ere eskuragarri
ez izatea da,
non eta eliburutegi
publiko digitalean

tutatua dago, eliburutegian aurkitu ahal duzu audioa italieraz, katalanez eta gaztelaniaz, azpigituluak gaztelaniaz. *I, Daniel Blake* azpigitulatuta dago euskarara, baina eliburutegian aurkitu ahal duzu ingelesez edo gaztelaniaz, eta azpigituluak gaztelaniaz eta katalanez.

“Euskal zinema” izeneko atalera jo eta 30 film ageri dira, euskarazkoak erdiak, haietatik helduentzat *Bi anai* eta *Izenik gabe*.

Galdezka ibili naiz besaulkitik, baina euskal oasira iristeko itxaropenik ere

ez dugu dagoeneko. “Bigarren denboraldiak ez nau asebate, zer ikusiko dut bazkalostean, txio-herria? Hona nire 2020ko top-a” sare sozialetan botatzen dugunean automatikoki onartzen dugu euskaraz ia deus ez egotea. Sumisioaren azkena dagoeneko euskaraz sortua edo euskaraturik dagoena ere eskuragarri ez izatea da, non eta eliburutegi publiko digitalean. Gaztelaniazkoek gain, badi-ra katalanezko pila bat ere (gure ez(d). eustasunaz lotsatzeraino cat pilaren aldean).

Arazoak egongo dira eginda dagoen lan hori eliburutegian sartzeko, noski, baina nik jakin nahi dut zeintzuk diren arazoak eta nola konponduko diren. Ez da onargarria gaztelaniaz edo katalanez bilduta dagoena euskaraz ez egotea. Eta bide batez, euskarazko film guztiak bildu ahala, bildu euskaraz gozatuko lituzketen euskaldun guztiak ere bertara: EAEko, nafar, iparraldetar, zein diasporako.

Luistxo Fernandezek Twitterren esan du Filminekoek galdetu dietela euskarazko azpigituluengatik, eta berak erabilteko esan diela. Itxaropena Filminen-gan izan behar al dugu? ●

**Zure osasuna
zaintzeko garaia da.
Bertokoa eta ekologikoa
kontsumitzeko garaia da.**

**Euskadiko Elikagai
Ekologikoak**
Alimentos Ecológicos
de Euskadi

DENON ARTEAN
LORTZEN ARI GARA

ESKERRIK ASKO!



AZKEN BOLADA HONETAN GAUZA ASKO IKASTEN ARI GARA. ORAIN BADAKIGU EGOERA ZENBAT ETA ZAILAGOA IZAN, ORDUAN ETA ERAGINKORRAGOA, ERABAKIGARRIAGOA ETA SOLIDARIOAGOA IZATEN ARI DELA ERANTZUNA. ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU HERRITAR GUZTIEI ETA EUSKADIKO POLIZIA ETA LARRIALDI ZERBITZUETAKO KIDEEI.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAIA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

75 urte dira Austriako Mauthausen kontzentrazio esparrua askatu zutela. Bigarren Mundu Gerran zeregin beldurgarria izan zuen: presoak akitu arte hiltzea. Euskal herritar gehien bildu zuen nazien esparrua izan zen eta hara joandako hirutik bakarrak baizik ez zuen bizirik ateratzea lortu: Marcelino Bilbao izan zen horietako bat. Hau da zoritzarreko historia baten ahazturiko kapitulua, euskal deportazioarena.

 **URKO APAOLAZA AVILA**

Harrobian lanean ari ginen, judutar talde bat eskaile-
rak jaisten hasi zenean. Orduan, haietako batek seinalea egin zuen eta denak amildegira korrika hasi ziren. Lehenak lurra jotzerako atzetik etorri zen bigarrena, gero hirugarrena, laugarrena... judutarrak pilaka hiltzen ziren harrobian! (...) Surrealistena da SSeK sabotaje bezala hartzen zituztela suizidio horiek”.

Bigarren Mundu Gerrako kontzentrazio esparruetan gertaturiko izugarrikeriak, urruneko historia baten pasadizoak direla iruditzen zaigu askotan, kamera ilun baten filtrotik paseak baleude bezala. Baina noizean behin, guganaino iristen zaizkigu modurik gordinenean: hura bizi izan zutenek kontaturik. Marcelino Bilbaoren (Alonsotegi, 1920 – Poitiers, 2014) memoriek erakusten digute euskaldunok badugula gure haragi puska naziek eragindako giza sarraskian. Haren iloba txiki Etxahun Galparsoro historialariak jaso du testigantza paregabea *Bilbao en Mauthausen* (Crítica, 2020) liburuan.

Euskal deportazioaren historia ahazmendi handi bat da, Holokaustoa mugetatik harago jazotako gerra baten drama arrotza baita euskaldun gehienontzat. Baina Bidasoaren alde batean zein bes-tean izandako gatazka biek –Espainiako Gerra Zibilak eta Bigarren Mundu Gerrak– sustrai bera dute: faxismoa. Eta haren aurpegi krudelenetako bat izan zen Mauthausen, naziek euskaldun gehien deportatu zuten kontzentrazio esparrua.

Maiatzaren 5ean 75 urte dira tropa aliatuek esparru hura askatu zutela. Denak 120.000 pertsona inguru suntsi-

tu zituzten, eta 1946az geroztik urtero egin ohi da ekitaldi hunkigarria handik igarotako biktimak gogoratzeko. Europako kontzentrazio internazionalista eta antifaxista handienekoa da. Aurten herrialde ugarietako milaka lagun espero ziren urteurren garrantzitsuan, baina COVID-19ak sorturiko krisiaren ondorioz bertan behera geratu da egitaraua, eta modu birtualean omenduko dituzte deportatuak maiatzaren 10ean, MKÖ Mauthausen Austria Komiteak antolatuturik.

“Mauthausenek gure gizateriaren ukapena haragiztatu zuen. Hor gertaturikoak erantzukizunez jokatzera behartzen gaitu, ez ahaztera”, adierazi du David Sassoli Europar Parlamentuko presidentek bideo solemne batean. Gure ardura da, beraz, ez ahaztea.

Iazko abuztuaren 19an Espainiako Aldizkari Orokorrak zerrenda bat kale-ratu zuen Mauthausenen hildako errepublikarren izenekin, eta bertan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 89 lagun ageri dira. Baina talde memorialistek eta ikerketa berriek aditzera eman dutenez, biktimak askoz gehiago dira: 1941etik 1945era Hego Euskal Herriko berrehundik gora pertsona deportatu zituzten nazien kontzentrazio esparruetara –gehienak Mauthausenera– eta erdia ez zen bizirik itzuli. Horiek guztiak kontutan edukita ere, zerrendak hankamotz jarraitzen du, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako herritarren izenak falta baitira.

Astekari honek Frantziako Deportatu Oroimenerako Fundazioaren datu basean dozenaka euskal herritarren izenak aurkitu ditu: Baiona, Bokale, Ainhoa, Senpere, Maule, Hendaia, Aldude, Gixu-



ne... ia herri guztietan bada euskal deportaturik. Horiek aurrekoei gehituta, baliteke deportazioa jasan zutenak 600 pertsona baino gehiago izatea Euskal Herri osoan.

Kopuru zehatza ez da garrantzitsuena ordea, asko direla baizik, gehiegi.

Iparraldeko deportatuek Estatuaren nolabaiteko aitorten ofiziala jaso zuten bere garaian, baina Hegoaldekoek urte guztietan ez dute halakorik izan, eta beste behin, herritarrak izan dira haiek gogoratzeko ekimenak bultzatu dituztenak, Barakaldoko Alazne ikastetxearena kasu –naziek deportaturiko barakaldotarren omenez zoruan *stolpersteine* pla-

Mauthausen

EUSKAL DEPORTATUEN HILTEGIA



HARROBIA. Mauthausengo harrobia zen kontzentrazio-esparruaren bihotza. Lanik gogorrena bertan egin behar izaten zuten presoek eta, egunero, "heriotzaren eskailerak" igotzen zituzten harri pisutsuak bizkarrean zituztela; ezinean geratzen zena hil egiten zuten. / USHMM

kak jartzea proposatu du-. Tamalez, euskal erakunde publikoetako ordezkariak berandu datoz efemeride borobil honen erakusleihora.

NOLA AMAITU ZUTEN KONTZENTRAZIO ESPARRUETAN?

Jaio zenean Nerbioi ibaiaren ondoan abandonatua -hortik Bilbao deitura- Marcelinok haurtzaro gogorra izan zuen Bizkaiko mehatzeen abaroan. 1936ko Gerran batailoierrepublikarretan ibili zen eta, beste asko bezala, Frantziara

erbestera zuen. Frantziar armadarekin Alemanen aurka borrokatu ondoren, azkenean Austriako Mauthausenen amaitu zuen nazien eskuetan. Nola iritsi zen haraino?

1939ko otsailean, Francorengandik ihesi zihoan milioi erdi pertsonako exodoak Kataluniako Pirinioak gurutzatu zituztenean, haien artean milaka euskaldun ere bazeuden; erbeste-kate luze bat azkenaurreko pausoak ziren. Lehenik "barneratze" hondartzetara eramanean, asko Gursen entzerratu zituzten ondo-

ren, Zuberoatik kilometro gutxira.

Frantziar agintariek ez zituzten erbestera bere lurraldean nahi, baina Hitlerrek Polonia inbaditu eta hexagonoak Alemaniari gerra deklaratu zionean dena aldatu zen. Orduan, espainiar errepublikarrak -euskal erbestera tuak barne- eta bere kolonien menpeko jendeak lehen lerroan jarri zituzten tanke germaniarren bazka izan zitezten. Euzkadiko Gobernuak, erbestean, nahia go izan zuen bere herrikideak frontera bidali emigrazio masibo bat ukan baino.

600

Euskal herritar inguru izan daitezke nazien kontzentrazio esparruetara deportatu zituztenak 1940-1945 urteen artean. Berreundik gora Hegoaldekoak ziren –ia erdia eliminatuak izan ziren–, Iparraldekoak berriz, gutxienez 350, eskura ditugun datuen arabera, asko Buchenwald eta Auschwitzera eramanak.

MAUTHAUSENEN AURKITUTAKOA

Amerikar soldaduek kontzentrazio-esparruarekin “topo” egin zutenean, milaka preso aurkitu zituzten hezurretan, baita hilotz ugari ere. Irudian, errusiar gunean pilatutako 180 gorpu, 1945eko maitzaren 5ean. / USHMM

Marcelinok bezala, gehienek Langile Atzerritarren Konpainietan eman zuten izena eta Maginot lerroa gotortzen ibili ziren –Alemania eta Frantzia arteko muga eraikitako defentsarako azpiegitura-sare erraldoia–, harik eta 1940ko maiatzean *Wehrmacht* alemanak erasoaldi azkarra hasi eta aste gutxiren buruan Herbehereak, Belgika eta Frantzia okupaturik, guztiak harrapatu zituen arte. *Frontstalag* edo fronteko atxilotze guneetara eraman zituzten lehendabizi, eta ondoren ehunka kilometroko ibilaldi neketsuak eginarazi *stalag*-etara.

Espetxe horietan errepublikar espainiarrek gainerako presoentzat bera jaso zuten hasiera batean. Baina egoera guttiz aldatu zen Ramón Serrano Suñer Espainiako Gobernazio ministroak 1940ko irailean Berlinera egindako bisitarekin. Hurrengo egunean, Führeraren agindua kaleratu zuen Segurtasun Bulegoak: *spanier* soldaduei preso izaera ukatu eta kontzentrazio esparruetara bidaliko zituzten hortik aurrera. Deportatu politiko bilakatu ziren. Francoren Gobernuak erabaki horrekin izan zuen loturaren frogaz zehatzik ez dago, baina Sophie Thonon-Wesfreid abokatuak ehunka dokumentu bildu ditu Serrano Suñerren inplikazio zuzena erakusten dutenak, tartean alemaniar enbaxadoreari bidalitako gutunak, esanez ez zitzaizela “axola” naziak beraiekin zer egingo zuten.

Halaxe iritsi zen Marcelino Bilbao-ren konboia Mauthauseneko geltokira

1940ko abenduaren 13an, elurte baten erdian. Atea ireki eta *Raus, raus! Raus, raus!* (kanpora!) entzun zuten SS paramilitar nazien ahotik. Ez zen lehen aldia, ezta azkena izango ere.

“HAU DA ZUEI GERTATUKO ZAIZUENA”

“Gau argitsu hartan herria zeharkatu genuen zakurrek eta SSek inguratuta. Etxeetan jendea lo zegoen lasai, baina argi gera dadila: haien ondotik pasa ginen. Urte batzuk geroago herritar horiek zioten ez zekitela zer ari zen gertatzen...”. Alemaniak anexionaturiko Austria garaian kokatua, Mauthausenen infernua zer den ikasiko zuen Marcelinok, III. Reich-aren esparru gogorrenetakoa baitzen, III. gradukoa hain zuten ere.

Oraindik ez ziren hedatu gure iruditegian hain ezagun zaizkigun gas-ganbera industrialak, eta SSen lan zikina egiten zuten *kapo* edo morroiek gupidarik gabe hiltzen zituzten kolpeka eta tiroz presoetako asko. Baina heriotza gehienak gaixotasunek, higieenez, Alpeetako hotzak, muturreko goseak eta lan jasanekin eragindakoak izan ziren: presoak “akituta hiltzea” zen esparruaren azken helburua, denek amaitu behar zuten errauts eginda, modu programatuan.

Alonsotegikoa esparrura iritsi eta gutxira zaindariatako batek sekulako kolpea eman zion pikatxoi batekin, ez zuelako agindu bat ulertu. Odolez blai, sendatzeko ezer gabe, apenas ateratzen bizirik atakatik: “Baina Mauthausenen ez zuen balio ‘ezin dut altxa’ esatea! Edo zutik jartzen zinen edo likidatzen zintuzten”... *Raus, raus!*

Deportatuei “berrogeialdia” pasarazten zieten baldintza izugarritan giltzapatuta, tarte horretan norbanako bezala ezabatu, otzandu eta zenbaki huts bihurtu zitezten. Marcelino Bilbao 4628 preso bilakatu zen: *Sechsendviertsig achtundwanzig*, alemanez.

Lehen gauaren ostean bisita jaso zuten barrakoiak: “Hezurretan zegoen gizaki bat sartu zen ia ezinean, eskeletoa zirudien”. “Begiratu ondo, ez nauzu ezagutzen?”, galdetu zion euskaldunari. Eta honek ezetz. Angel Elejalde bilbotarra zen, sei hilabete lehenago berekin batera frontean aritutakoa: “Begiak hondoratuta zituen, gorputza haragirik gabe, eta beroki zikin bat zeraman soka batez lepotik zintzilik. Hotzak uzokurtuta zegoen eta bi egur zati zituen oinetan, hainbeste ibiliagatik zulatuta zeudenak”. Eszena hura betirako geratu zitzaion iltzatuta, “hau da zuei gertatuko zaizuen”, esan zion lagunak.



Nach und nebel (gaua eta lainoa) dekretuaren ondorioz atxiloturiko erresistenteak ziren. Hitlerrek Molotov-Ribbentrop ituna hautsi eta Sobiet Batasunari eraso zionean, lurralde okupatuetan komunisten erresistentzia ekintzak ugaritu egin ziren. Horri erantzuteko eta oposizio politiko oro sekretupean desgerrarazteko marko legala jarri zuen NN dekretuak. Gestapok eta polizia kolaborazionistek ehunka lagunekoa sarekadak egin, eta inolako informaziorik eman gabe hil edo deportatzen zituzten Alemaniako kontzentrazio esparruetara.

Horien artean, jakina, euskaldunak ere bazeuden, talde armatuetan edo ihes-sareetan hartu baitzuten parte. Asko Ipar Euskal Herrikoak ziren, beste asko Hegoaldekoak, eta haien artean berehala sortu zen harreman berezia. Mauthausenera soilik ez, beste kontzentrazio esparru ezagunetara ere eraman zituzten: Dachau, Buchenwald, Auschwitz, Ravensbrück... Azkeneko honetan, hain zuzen, Euskal Herriko hainbat emakumek egin zuen topo.

Simonne Lelouch

Holokaustoak badu izen bat Euskal Herrian, eta emakume izena da: Simonne Paqueta Lelouch donostiarrarena. Auschwitz gaseatu zuten 1943ko irailaren 12an. Ezagutzen den halako kasu bakarra dela uste da –Lapurdiko kostaldean babestu ziren judu atzerritarren sarraskia alde batera utzita–.

Naziak 1942an hasi ziren *Endlösung der Judenfrage* edo "judutarren auziaren azken soluzioa" ezartzen, eta Lelouch judu poloniar batzuen semearekin ezkondu ta egoteagatik hil zuten. Donostiako Udalak berrikitan aitortu du orain arte ezkutan egon den biktima gisa.



EBENSEE. Azken egunetan naziek 18.000 lagun pilatu zituzten Mauthausen ondoko zelai honetan. Zenbait testigantzen arabera, beraien plana zen denak hiltzea tropa aliatuak iritsi aurretik, baina ez zuten lortu. Irudian, askapenaren eguna. / USHMM

Ravensbrück-eko esparrua oso garrantzitsua izan zen gerra-industria alemanarentzat: emakume eta haurren eskuak baliatu zituzten material belikoa fabrikatzeko; baina esklabo horiek adore izugarria erakutsi zuten eta sabotajeak antolatu zituzten arma horietako asko matxuratzea lortuz, Neus Catalá preso katalanak *Un cel de plom* (errautsezko zerua) eleberrian azaldu zigun moduan.

Deportatu berriek Mauthausenen aurkitu zuten egoera oso bestelakoa zen. Naziak gero eta beharrezkoa zuten preso lan-eskua eta, 1943ko apiriletik aurrera logika kapitalistarekin berrantolatu zuten kontzentrazio esparruen sarea, gatibuei ahalik eta errendimendu handiena atera nahian. Hala, Mauthausen pasoko toki bilakatu zen, eta hortik beste gune txikiagoetara birbidaltzen hasi ziren giza-merkantzia. Ikuspegi aldaketa horrek –eta beteranoen esperientziakheriotza kopurua gutxitzea ekarri zuen espainiar errepublikarren artean.

Judutarren patua ordea ez zen aldatu: bazen denbora bat 120 pertsona kabitze moduko gas-ganbera txikia martxan jarri zutela kartzelako sotoan, Zyklon B-rekin juduak sarraskitzeko. Marcelinok eta bere kideek Jugoslaviako famili osoak ikusten zituzten konboietan iristen: “Barrura sartzen zituzten engainatuta, dutxatzera zihoazela esanez. Eta gu metro gutxira geunden, baina alemanek ez ziguten ezer ezku-

tatzen, konbentzitura zeuden handik ez ginela bizirik aterako”.

ASKAPENAREN EGUNETIK, AHANZTURARA

Azkeneko urtea ondoko Ebensee zelaian igaro zuen Marcelinok. Jadanik bistakoa zen Alemaniak gerra galduko zuela eta presoak antolatzen hasi ziren, naziek denak hiltzea erabakiz gero erresistitzeko. Askapenaren egunean “eguzki distiratsu” bat zegoela oroitzen du, baina ahobizarrrik gabe kontatzen du presoek nola hil zituzten banaka-banaka gertatzen ziren guardia eta kapo apurrak, batzuk errauste-labeen bizirik sartzeraino. “Muturreko egoera horiek ezin dira egungo balio edo ideien arabera aztertu”, ohartarazi digu Galparsorok.

Bizitakoa eta gero, harrigarria da errepublikar deportatuek gerra amaieran jasan behar izan zuten utzikeria, bai esparrura iritsi ziren AEBetako soldaduen bai beste erakundeen ezjakintasun eta axolarik ezagatik –Marcelinok behin baino gehiagotan erakutsi zuen arrangura, Pariseko Euzkadiko Gobernuaren ordezkari izan ez zutelako berekin “ezer jakin nahi izan”–. Châtellerauten (Akitania) amaitu zuen, lagun eta preso-kide izan zuen Jose Mari Agirre irundarraren familiarekin bizitzen.

Historia honek aurpegia jarri dio, itzal eta argi, Mauthauseneko basakeriari; eta orain euskaldunok ere ezin dezakegu esan zer gertatu zen ez dakigunik. ●

Ikasgelan itzalean izan ohi diren premia bereziko ikasleak zuzenean ikusezin bihurtu dira konfinamendu garaiotan. Laguntzeko eta eskolaren eguneroko martxan parte hartzeko ondoan hezitzailea behar duen ikasleari helduleku hori desagertu egin zaio albotik, berdin garapenerako sostengu dituen espezialistak; askok ez du ulertzen egoera berria. Kezkatuta daude gurasoak, eta gainezka, beraien bizkar geratu baita lan gehiena.

PREMIA BEREZIKO IKASLEAK PANTAILA ATZEAN GALDUTA

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ikasleak klasearen osotasuna ikusten du eta osotasun horretan pentsatuz prestatzen ditu edukiak; gure ikasleak maiz hortik kanpo geratzen dira eta horregatik gu ondoan gaude laguntzeko, baina orain ordeza ez, eta ez dut ikusten eskola jarraitzen ari den lan martxan integratuta daudenik”, dio Ana Coranti hezitzaileak. Lehen Hezkuntzan premia berezia duten haurrekin ari da bera ikasturte honetan, eta garbi du: “Atzean utzi ohi ditugunak, are atzerago geratu dira konfinamenduan”. Ez presentziarik, ez kontaktu fisikorik, digitalki ikasle hauengana iristea maiz oso zaila dela aitortu digu hezitzaileak.





Badirudi egoera hau aitzakia dela gure seme-alabek hezkuntza jasotzeko duten eskubidea alboratzeko

Kistiñe Mejuto, gurasoa

“Orokortasunean mugitzen gara, eta ikasle hauei ahalegin handia eskatzen zaie; egokitu behar dute antolatuta dagoen sistemara, izan beharrean eskola ikasle hauetara egokitzen dena”

Ana Coranti, hezitzailea

“Ikastetxeak berriz zabaltzen dituztenean ikusiko dugu, premia bereziko ikasleei bideratzen zaizkien baliabideetan, administrazioarentzat ea benetan garrantzitsuak diren ikasle hauek ala ez”

Lorea Gisasola, hezitzailea

“Deskubritu dugu plataforma birtual batzuetan badagoela aukera denak bideo-konferentzian ari garelarik nik nire ikaslearekin bakarka txateatu ahal izateko; horrelako zirrikituak bilatzen joan behar izan dugu”

Igone Saizabal, hezitzailea

Ikasleak duen autonomia da gakoa, Igone Saizabal DBHko hezitzaileak gehitu duenez, eta autonomia gutxi dutenak dira galtzaile nagusiak. “Gure lana da autonomiarik ez duen horren ondoan egotea eta irakaslea klase osoarentzat ari den bitartean ikasle horri laguntzea; nola egiten da hori pantailaren beste aldetik? Adibidez, bideo-konferentzian irakasleak testu-liburuko orriren bat aipatzen du eta nik ez daukat testu-liburua aurrean”. Halere, pixkanaka ikasten doazela dio Saizabalek: “Deskubritu dugu plataforma birtual batzuetan badagoela aukera denak bideo-konferentzian ari garelarik nik nire ikaslearekin bakarka txateatu ahal izateko; horrelako zirrikituak bilatzen joan behar izan dugu, eta bakarka aritzeko tarteak ere bilatzen ditugu”.

TALDEAREN PARTE SENTITZEA

Corantik eta Saizabalek garbi dute: edukiak ez dira inportanteena. Hasteko, batzuei asko kostatzen ari zaie egoera hau ulertzea eta kudeatzea, “bereziki adimen urritasunen bat dutenei”, eta etxean sei ordu pantailaren aurrean ere ez du inork jasaten. “Guk erritmoa jaitsi dugu, eta oro har jartzen diren helburuak akademikoak dira, baina beharrak bestelakoak dira: nire ikasle batek, esaterako, hitz egiteko behar handia du”, dio Saizabalek. Ikasleak harremanak mantentzea eta taldearen parte sentitzea jarri dute hezitzaile hauek lehentasun: “Talde txikiak sortzen ditugu beste ikasleekin harremana mantentzen segi dezaten. Azken finean, eskola ez da edukiak lantzea soilik, eskola da lagunak, jolasa... eta hori guztia desagertzea galera handia da batzuen kasuan”, azpimarratu du Corantik.

Lan handiena, baina, etxean dago. “Gurasoak irakasle bihurtu ditugu eta zama handia dute. Arduratu behar dira seme-alabak lan egin dezaten, haurren estresa eta nekea kudeatu behar dute, eta premia bereziko ikasleek normalean ondoan norbait behar dute, baina etxe guztietan egoera ez da berdina eta erantzuna oso ezberdina izaten ari da batetik bestera. Nire ikasleetako batek laguntza handia behar du lan-ohiturak finkatzen, antolatzen, motibatzen... eta guraso biak lanean ditu. Nola egingo du berak bakarrik?”, kontatu du Corantik.

Beste kasu bat ere hartu du hizpide: “Ama batek esan zidan asko kostatzen zaiola haurra lanean jartzea, haserre bukatzen dutela; eskolan eszenatokia aldatzen da eta rolak ere bai, haurrak gurasoak guraso gisa ikusten ditu, ez irakasle gisa, eta batzuei gainera asko kostatzen ari zaie ulertzea etxean ere lan egin behar dutela”.

“EZ DIRA GOGORATU GURE SEME-ALABEZ”

Kistiñe Mejuto da zamatuta dagoen guraso horietako bat. Espekro Autistaren Nahasmendua duen 11 urteko semea du, eta premia bereziko ikasleen gurasoak biltzen dituen Lagundu elkarteko kidea da. Familien bizkar presio handia utzi dela esan digu, eta ikasle hauek dituzten etxe ugaritan desoreka handiak ikusten ari direla, bati baino gehiagori gain hartu diolako errutina eta laguntza emozional faltak, lana egituratu eta egokitzeko zailtasunak, eta egoerak oro har. “Guraso askok tutorearekin baino ez dute harremana, hezitzaileak ere bazter utzi dituztelako, eta gure haurrak oso galduta daude. Jarrera aldetik ere, estresatuta daude eta adierazteko eta emozioak kanalizatzeko gaitasunik ez dutenak lehertu egin dira. Etxean une latzak eta gatazkatsuak bizitzen ari gara”.

Kritikoa da Mejuto: “Oro har, oso ahaztuta gauzkate eta administrazioari bost axola zaizkio ikasle hauek. Ohi-tuta gaude, horrela izan da orain arte, eta konfinamenduan ez da ezberdina. Esanguratsua da, adibidez, konfinamenduaren hasierako mezuetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez zituela profesional terapeutak eta hezitzaileak aipatu ere egiten, sindikatuek arreta deitu zioten arte. Subkontzientea izango da, baina azkar erantzun behar dutenean ikusi da ez direla gogoratu ere egiten ikasle hauentzat funtsezkoak diren figura horietaz, azken finean ikasle hauetaz ere ez direlako gogoratzen; ez dituzte kontuan hartzen. Uneoro esaten digute, ‘ez estresatu, lasai hartu’, eta hori oso ongi dago, malgutasuna behar dugu, baina eman oinarri bat eta gero ikusiko dugu noraino iritsi gaitezkeen, zeren badirudi egoera hau aitzakia dela gure seme-alabek hezkuntza jasotzeko duten eskubidea alboratzeko. Beste familiei berdina esaten diete ala guri bakarrik?”.

Premia bereziko ikasle batzuek ikastetxean dituzten espezialistak –fi-



Olaiak miopatia du eta eskolak ematen dizkion estimuluak botatzen ditu faltan bere amak.

sioterapeutak, hizkuntza espezialistak eta halakoak– mantendu egin dira, baina noski, hauek ere online, eta beraz, gehiago dira aholkuak eta jarraitbideak, gurasoek ahal duten neurrian eta ahal duten moduan egin behar dituztenak. Aldea, hortaz, handia da. Eta hala ere, Kristiñe Mejutok dio hainbat familiak ez duela espezialisten berririk izan konfinamendu sasoian. “Kontua da, bestela ere oso denbora gutxi eskaintzen diotela ikastetxeetako espezialistek gure seme-alabei, eta gehienek kanpoan bilatu behar dutela

laguntza, fisioterapeuta eta logopeda pribatueta. Baliabide horiek bertan behera geratu dira garaiotan, eta galera handia da”. Galerak hizkuntzan, mugikortasunean, autonomian... aipatu ditu ama honek. Garapenean sor daitezkeen atzerapenekin kezkatuta dago guraso bat baino gehiago.

Ez da Elena Arroyoren kasua. 5 urteko bere alabak miopatia du (giharrak oso ahul izatea eragiten du), baina Arroyo fisioterapeuta da, eta behar bezala lagundu diezaioke alabari. Aldiz, eskolak ematen dizkion estimuluak bo-

tatzen ditu faltan: “Lagunak, harremanak. Etxean edo eskolan aritzeak ez du zerikusirik, eta guk zortea dugu, bi gurasoon artean molda gaitezke, baina familia askotan ezinezkoa izaten ari da”.

NORENTZAT IZANGO DIRA ERREFORTZU BALIABIDEAK?

Hezitzaileek salatu dute hezkuntza administrazioak bigarren mailako ikasleentzat dituela premia bereziko haur eta gazteak; “orain arte hartu dituzten neurri eta murrizketak ikustea besterik ez dago”, dio Lorea Gisasola hezitzaileak. Administrazio guztiek dagoeneko iragarri dute egoera honek sortu dituen hutsuneei aurre egiteko eta errefortzua behar duten ikasleentzako baliabideak jarriko direla, uda honetan ez bada hurrengo ikasturte hasieran. Baliabide horiek, baina, ez dira zehaztu. “Ikastetxeak berriz zabaltzen dituztenean ikusiko dugu, premia bereziko ikasleei bideratzen zaizkien baliabideetan, administrazioarentzat ea benetan garrantzitsuak diren ikasle hauek, ala ez”, azpimarratu du Gisasolak.

Nafarroan, hezitzaile batzuk beste lan batzuetara bideratu dituzte, beharrrak asetzeko: hezitzaileen zerrendara deitu zuen Nafarroako Gobernuak, zahar-etxeetan zaintzaile aritzeko eskainiz. Lurdes Elizegi da eskaintza onartu zuen hezitzaileetako bat: “Autonomia programa egin nuen 3 urteko gelan dagoen nire ikaslearentzat, baina hortik aurrera ezin nuen ezer askorik egin, arreta zuzena behar du haurrak eta hori gurasoen gain geratu da egoera honetan. Haiei hainbat proposamen bidali ostean, zahar-etxean jarri nintzen lanean”.

Eskolak orokorrean pentsatzen duela gogoratu digu Ana Corantik, oinarria dela gela orokorra, gela 'arrunta': “Nahiz eta ikasle guztietara iristen saiatu, orokortasunean mugitzen gara, eta ikasle hauei ahalegin handia eskatzen zaie; egokitu behar dute antolatuta dagoen sistema horretara, izan beharrean eskola ikasle hauetara egokitzen dena. Abiapuntua da eduki jakin batzuk ikasi behar direla ikasturtean, eta gero gogoratzen gara premia bereziko ikasleak daudela eta horiek nola lagundu pentsatzen jartzen gara, gela orokorraren martxa jarraitzeko gai izan daitezen. Baina abiapuntuak izan beharko luke nola moldatu eskola-ekintza beraien beharretara”. ●



Planetak ez du negoziatzen, desazkundera egongo da bai ala bai”

JOAN JOSEP BOSH
EKONOMILARIA ETA ATTAC-EKO KIDEA

Bartzelonan jaio zen 1965ean, baina Iruñean bizi da aspaldi. 2014an egin genion elkarrizketa, Podemos Europako Legebiltzarrera aurkeztu eta lehen ezustekoa eman zuenean; Nafarroako zerrenda burua izan zen orduan. Nafarroako Attac-eko kidea da, ekonomialari independentetzat du bere burua, eta bere bulegotik egiten du lan aholkularitza lanetan. Grina handiz mintzo da eta oso pedagogikoa da.

 **XABIER LETONA**  **JOSU SANTESTEBAN**

Akaso Bigarren Mundu Gerraz geroztik bizi dugun krisi ekonomiko handienaren aurrean gaude?

Bai, hala da. BPGren erorketa dagoneko 1920ko crack-ean izandakoaren neurrikoa da. Hau ordutik gertatutako erorketarik handiena da. Batetik, mundu osoan eragin du, Txina eta AEBko ekonomietatik hasita; bestetik, inoiz ikusi gabekoa gertatu da, eskaintza krisia eta eskari krisia batera etorri direla. Hau da, produkzio ahalmena behera etorri da, herritarrak ezin direlako lanera joan, eta sektore askotako kontsumoa zuzenean desagertu da. Honek guztiak aldaketa sozial handiak ekarriko ditu, lanean, kalera ateratzerakoan, bidaiatzerakoan...

Konpara dezakezu krisi hau 2008koarekin?

Hura finantza krisi bat zen eta tamainan orain biziko duguna baino txikiagoa. Hura etorri zen bankuen sektorean egondako gobernantza txarraren ondo-

rioz: ohiko bankuak, eta baita ere itzalpeko bankuen mundua, hau da, inbertsio funtsak, pentsio funtsak dituzten aseguru konpainiak eta beste hamaika. Egia esan, ohiko banku komertzialak txukun samar daude, baina itzalpeko bankuen sektorea ez da behar beste lotu, eta desoreka handiekin heldu da krisi honetara. Ikusteko dago, baina krisi honek asko eragiten badio, gizartean nabaritutako den eragina basatia izango da.

Gobernuetatik berdin ari dira jokatzeko herritarrei eta enpresa munduari bideratzen zaizkien laguntzetan?

Argi ikusten da enpresa munduak Espainiako gobernuan duen eragina askoz handiagoa dela herritarrok duguna baino. Horrelako egoera batean neurriak hiru eratakoak izan daitezke: bat, estatuak dirua ematen du; bi, dirua uzten du; edo hiru, zordunaren eta hartzekodunaren arteko epeak luzatzeko arauak jar-



tzen ditu. Oraingoan, estatuak sostengua eman dio herritarrari ordainketak atzeratzeko: hipoteka, alokairua... baina horrekin arazoa bakarrik atzeratu egiten da. Autonomoei bai eman dizkie laguntza zuzenak, 1.000 bat euro hileko eta pertsonako. Baina, bestetik, estatuak oso gogor jokatu du herritarrek erakutsi beharreko agiriekin, orain horiek lortzea oso zaila da eta.

Enpresei emandako diru-laguntzetan, ordea, ez da halako baldintzarik egon. Funtsean, aldi baterako enplegu erregulazioetan (ABEE) bakarrik eskatzen zaie enplegua mantentzeko konpromisoa hartzea. Berdin da enpresa ondo doan edo larri dabilen, estatuak soldatak eta gizarte segurantzaren kuotak bere gain hartu ditu. Min ematen dit sekulako irabaziak dituzten enpresak edo hemen ia zergarik ordaintzen ez dutenak ABEE horiek jasotzea. Horrez gain, biziki haserretzen nau patronalak dioenean enplegua sortzen duela: "Tira, ba sortu ezazue orain!". Gezurra da enpresek enplegua sortzen

duela, enpresek lan gaitasuna erosten dute. Eskariak sortzen du enplegua, eta eskaririk gabe ez dago enplegurik.

Zor publikoa are gehiago handituko da. Nola egin beharko litzaioke aurre zorrari, berriz ere herritar xumeek ordaindu ez dezaten?

Gaur egun dauden arauekin zor hori ordaindu egin behar da. Baina jakina, arauak alda daitezke eta hori da egin beharko litzatekeena. Europar Batasuneko Itunaren 123. artikulua dio bankuek ezin dietela dirurik mailegatu zuzenean estatuei. Ordua da arau hori aldatzeko, Europako Banku Zentralak (EBZ) estatuei zuzenean eman diezaizkien maileguak inongo interesik gabe. EBZk modu asko ditu egoera hau bideratzeko gizarteak minik hartu gabe: adibidez, estatuak berarekin dituzten zorrak kitatzea, hauen zorraren zati bat EBZren balantzeetan dago eta; hori egin dezake proportzioan biztanle kopuruaren arabera, BPGaren arabera...

modu asko ditu. Bigarren modu bat: zor gehiago eman, baina hau betikotuz, hau da, zorra hor dago baina inoiz ez da ordaindu beharko; praktikan berdintsua da. Eta hiru, gastu publikoa zuzenean handitzea, EBZk estatuei dirua emanaz.

Eta zergatik ez dituzte arau horiek aldatu nahi?

Azalduko dizut gaia Espainiako Estatuen zor publikoa aintzat hartuta. Honen zor publikoa gaur egun 1,2 bilioi eurokoa da, eta gaur egun arte interes gisa ordaindu duen kopurua 600.000 milioi eurokoa da. Hau da, Espainiak bere dirua egiteko soberania balu eta dirua zero interesera jasoko balu, egun duen zor publikoaren erdia desagertuko litzateke. Eta nora joan da dirutza hori? Finantza sektorera, zor publikoan inbertitu duten aurreztaileengana.

Askok aipatzen da aberatsenei zergak igotzea, eta toki batzuetan egiten ari dira.

Badira proposamenak, baina hauek ateratzea ere gaitza izango da. Attac-etik proposatzen ari gara super-aberatsei zergaz igotzea. Munduko 60 pertsona aberatsenek munduko biztanleria erdiak adinako aberastasuna dute. Horien aberastasunari %1eko zerga jarrita, haien bizitzetan ez legoke inolako aldaketak eta, aldiz, estatu askotako zor publikoak nabarmen gutxituko lirateke eta herritarrei eskainitako laguntzak hobetu ere bai.

Beste zerga posible bat da finantza eragiketei jarraitakoa, balioko lukeena baita ere dagoen finantzarizazio itzel horri aurre egiteko. Munduko estatu guztietako zor publikoa batuta 58 bilioi dolarrekoa da gutxi gora-behera. Baina lehen aipatu dugun itzaleko finantza sektore horrek –ohiko bankuek apartekoa– kontrolatzen dituen aktiboek kopurua 180 bilioikoa da. Hau da, arautu gabeko sektore honek kontrolatzen duen dirua estatuen zor publikoaren hirukoitza da. Beraz, irtenbideak badira, baina topo egiten dute planetako gobernu garrantzitsuenak presionatzen dituzten finantza lobby horiekin.

EBko estatueta ere ez dago adostasunik sortuko den zor publiko hori ordaintzeko. Non dira gakoak?

Funtsean galdera handia zera da: zorra EBko estatu guztien artean berdin ordainduko da ala ez? Hiru galdera nagusi daude. Bat, estatu bakoitza bere aldetik doa ala ez? Noski, zor publikoaren, merkatuan, estatu aberatsenak lor ditzakete interes hobeak bakarrik joanda denek batera eskatuta baino. Bi, EBren laguntzak baldintzatuak dira ala ez? 2008koak baldintzatuak izan ziren. Eta hiru, dirua itzuli beharko da ala ez? MEDE (Egonkortasunerako Europar Mekanismoa) edo SURE (langabezirako diru-laguntzak) planetako dirua mutualizatutakoa da, EBren izenean ematen da, baina baldintzekin.

Ezker eskuin hazkunde ekonomikoak jarraitzen du izaten gure eredu ekonomikoaren ardatza eta badirudi munduan anatema dela desazkunde planifikatua aipatzea.

Oraingo osasun krisiarekin anatema hori egun gutxitan desegin da. Ez dut zalantzarik, desazkunde hori bai ala bai gertatuko da. Bi mende nahiko izan dira, humanitateak milioika urtetan

sortutako energia fosila xahutzeko eta izandako hazkunde ekonomiko basatia horren gainean eraiki da. Baina hori laster bukatuko da, nire lagun batek dioen moduan “planetak ez du negoziatzen”, produkzioa jaitsiko da bai ala bai, energia berriztagarriek ez dutelako gaitasunik orain arteko ereduari eusteko. Auzia zera da: desazkunde hori emango da trantsizio bidez edo kolapso batekin? Koronabirusarekin argi ikusi da hori, ez zen ekonomia gelditu nahi, baina birusak ez dizu negoziatzearako aukerarik ematen, gelditu behar duzu eta kito. Mundu guztiak biolina josten jarraitzen du, baina Titanic-a esaten ari da hondoratzen ari dela.

Parte hartu dut Nafarroako Gobernuaren programa ekonomikoaren eztabaida batean eta hor bi hitz dira nagusi: lehiakortasuna eta hazkunde. Eta han nengoen ni, desazkundera planifikatu behar dela zioen zoroa. Desazkunderako prestatzen ez bazara, gertatuko zaizu koronabirusaren etorrerarekin bezala, ez geundela prest. Badira desazkunderako ereduak, baina noski, bizimodua ez da egungoa izango. Esaterako, ahaztu gaitezen 30 urte egin aurretik bost kontinenteak ezagutzearekin. Ez du zentzurik Ameriketako marakuya jateak Nafarroako Erriberan fruta dagoenean.

Orain asko hitz egiten ari da enpresen birlokalizatzeaz, hau da, berriz etxeratzeaz. Azkartuko da fenomeno hori munduko ekonomian?

Ezinbestekoa izango da, une batean ezinezkoa izango baita da mundu mailan dagoen garraio mugimenduari eustea. Horregatik da hain garrantzitsua egokitzen hastea ekonomia berri horretara, non dena gertukoagoa izango den. Zergatik ez ditugu maskara nahiko izan hemen? Txinan egiten zirelako. Horregatik ez ginen prest. Gainerako guztia ere berdin, beraz prestatu gaitezten.

2008ko krisian asko aritu ginen hainbat kontzeptuz, adibidez

Nafarroako Banku Publikoari buruz. Posible da halakorik Nafarroan?

Jakina, eta hori da Attac-etik gomendatzen duguna. Europar banku publiko asko daude, oro har pribatuek baino kaudimen hobeak dute eta beharrezkoak dira. Kontua da zein eredu nahi dugun eta zein tamainakoa. Azken finean, krisi honek eredu ekonomiko-sozial egoikiagoa eraikitzeke aukera ematen digu eta banku publikoarena ere

testuinguru horretan sartu behar da. Ahalik eta neurri handienean publiko berreskuratzeko aukera dugu, adibidez osasun publiko. Bankiarekin, adibidez, hori egin behar zen, erreskatatu eta publiko egin. Hainbat industria alorrekin ere berdin. Zer gertatu behar da, orain hainbat enpresa ez ixten lagundu behar duela estatuak, gero

hauek berriz irabaziak dituztenean akziodunen artean bana ditzaten?

Errenta publiko unibertsalaz ere asko hitz egin da egunotan. Gaia aspaldi bultzatzen duen Joan Raventosek, adibidez, ezkerretik proposatzen du eta PPko ekonomia ministroa izan zen Luis de Guindosek eskuinetik. Nola ikusten duzu?

Ez dute gauza berberaz hitz egiten. Eskuinetik une honi erantzuteko emergentziatzeko errentaz ari dira, karitateko ekintzat bat herria altxa ez dadin. Raventos, aldiz, oso aspalditik ari da gaia jorratzen unibertsitatean, ikerketa sakonekin; nik aztertu dut berak egindakoa eta oso bideragarria iruditzen zait. Bere proposamena da oinarritzko errenta, unibertsala eta baldintzarik gabekoa. Hau da, herritar guztiek jasoko lukete, baita Amancio Ortegak ere. Azken honek, jakina, errenta aitortzen bidez, gero askoz gehiago ordaindu beharko luke. Baldintzarik gabe izatea garrantzitsua da, burokrazia asko errazten duelako eta ez diolako inori estigma-rik jartzeko: gaur egun, errentaren bat jasotzeko belaunikatu behar duzu eta txiropa zarela frogatu. Zerga sistema ere aldatu beharko litzateke. Azken hamar urteetan sozietate zerga erdira jaitsi da,



baina enpresen irabaziak ez dira erdira jaitsi, beraz hor zerbait gaizki egiten ari da. Batzuek diote errenta horrek bultzatuko duela jendea lanik ez egitera, baina aztertu dutenen esanetan horregatik beharko luke errentak oso oinarritzkoa, bizirautekoa, eta diotenez, herritarrek hori jasota ez diote lan egiteari uzten.

Egungo egoeran zer aholkatuko zenioke Nafarroako Gobernuari?

Haiekin egindako eztabaidetan desazkundera planifikatzeko esan diet, baina ez didate kasurik egiten. Hemen talentu handia dago herritarren artean eta hori baliatu behar da. Berlokalizazioaz eta kontsumoaz ere hitz egin genuen: ezin da kotxeen esportazioarekin itsutu. Sentitzen dut, baina ibilgailu pribatuen sektorea desagertzera doa. Tren lasterrarekin daude kezkatuak, duela gutxi aireportua handitu zen... Mugikortasunaren apustua gertukoa izan behar da, ekologikoagoa, herri eta hirien artekoa, abiadura handiko bideen eredia indartu gabe. Koronabirusa iritsi denean ohartu gara zer den oinarritzkoena: ar-

nasa hartzea, jatea eta afektu sozialak izatea, norbaitek deitzea eta "zer moduz zaude" esatea, besarkada bat ematea.

Eta herritarrei?

Saia daitezela ekosistemaren zaintzarekin bat datozen bizimodu ereduakin bizitzen: gertuko dendetan kontsumitu, bizikleta eta zapata gehiago... Kontua ez da atzera egitea, datorkigunaren aurrean prestatzea baizik. Gobernuak bakarrik ez, guk ere atera behar ditugu ondorioak bizi dugun egoera honetatik. Krisiak beti ematen du aldaketarako aukera. Beharbada gobernuak orain harikorrak dira eta baliatu behar dugu hori, bakoitza dagoen lekutik, denon artean haienganako presioa handitzeko.

Baikorra zara?

Uste dut egoera honetatik ateratzen garenean, gehiengo murgilduko dela lehengoan eta iraganeko akatsak errepikatuko ditugula. Baina honek bere arrastoa utziko du, bere garaian Espainian M15-ak utzi zuen moduan adibidez, eta herritarren kontzientziak gora

gingo du, une batean kontzientzia maila horrek gobernuetan aldaketak bultzatzeraino. Feudalismoak kapitalismo-rako trantsizioa lau mendekoa izan zen, eta ez zen berdin gertatu leku guztietan, ezta intentsitate berarekin ere. Errusiara kapitalismoa 1990ean iritsi zen eta Txinan 2000ren bueltan. Pixkanaka kapitalismotik guztien onurarako ekonomia goazela uste dut. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

MASKARA ERAGINKORRA AL DA BIRUSETATIK BABESTEKO?

Edo, bestela esanda, olibak biltzeko sare batekin dilistak harrapa al daitezke? Bi galdera horien erantzuna, ñabardurarik gabe, ondokoa da: ez, iragazkiaren zuloetatik ihes egiten dute.

 JOSE MARIA PARICIO  DANI BLANCO

Tamainari dagokion afera da. Iragazi nahi duzunaren tamainaren eta iragazkiaren zuloen diametroaren arteko kontu bat da. Ohiko birusek 100 nanometro (nm) inguruko neurria dute. Nanometro bat milimetro baten milioirena da, mikroskopio elektronikoarekin bakarrik ikus daiteke. Koronabirusak 100 eta 160 nm artean neurtzen du, gripearen askotariko birusek neurtzen dutenaren antzera.

Bakterioek 500-8.000 nm neurtzen dituzte: birusak baino 5-80 aldiz handiagoak. Mikroskopio normalarekin, optikoarekin, ikus daitezke. Kutsadura industrialeko partikula kutsatzaille finek 2.500 nm neurtzen dute: birus batek baino 25 aldiz handiago. Partikula kutsatzaille lodiek (polena, hautsa) 10.000 nm ere neurtzen dute: birus batek baino 100 aldiz lodiagoak. Lupa indartsuaren bitartez ikusten dira.

Beharbada, Asiako hainbat herrialde-tako biztanleek amore eman dute, eta beren bizi-espazioen kutsadura doilorraren aurka protesta egin ordez, maskarak jartzen dituzte modu masiboan, arnastu aurretik kutsadura zerbait iragazteko. Baina ez birusak.

Oso azterlan gutxi dago epidemien hedapena kontrolatzeko maskarak erabiltzearen eraginkortasunari buruz. Hala ere, eraginkortasunaren frogak argirik gabe, erabiltzeko joera zabaltzen ari da.

Maskaren eraginkortasunari buruz dauden ikerketak eztabaida ezinak dira: ohiko maskarek, oihalezkoek, gazazkoek,

kotoizkoek, etab. partikula biralen % 90 inguru pasatzen uzten dute, haien poroak handiegiak direlako haien zatiak.

Poro fineko N95 izeneko maskarek aireko partikulen % 95 iragazten dute, baina ez birusak bezain txikiak, 550 nm -tik gorako partikulak iragazten baitituzte. Europako arauen arabera FFP2 eta FFP3 maskarak eraginkorrak dira partikula biralak igarotzea eragozteko.

Baina N95 eta FFP motako maskarek bi arazo dituzte. Bat, erabilera unibertsalerako, haien prezioa ekonomikoki onartezina da, eta bi, bigarren mailako ondorioak eragiten ditu, hala nola buruko minak, arnas zailtasuna eta klaustrofobia-sentsazioa, haien erabilera luzea eragozten dutenak. Bihotzeko edo oinarritzko arnasketa-arazorik izanez gero, ezin dira erabili. Maskara horietako askok, arnasa hobeto hartu ahal izateko, arnasa hartzeko balbula bat dutenez, ez dituzte gainerako pertsonak babesten norberaren birusetatik.

Maskaren eraginkortasunari buruz egin diren ikerketa urrien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

1. Gripeak jotako bederatzi gaixorekin egindako ikerketa batek (Johnson 2009) erakutsi zuen maskara normalak eta N95 motakoak eraginkorrak zirela gripearen birusa ez pasatzeko, gaixoak ez tulka ari zirenean. Maskarak kontu handiz jarri eta egokitu zituen maskarak jartzen trebatutako mediku batek. Adi: garrantzitsua da maskara ondo jartzea, eta erraza da hurrek maskara erdi zin-



tzilik eramatea. Gripearen birusarekin egin zuten ikerketa hau.

2. Baina duela gutxi egindako ikerketa batean (Bae 2020), COVID-19k kutsatutako lau pertsonak ez tulka paratu zituzten birusen hazkuntza-plaka (petri plakak) batzuen aurrean. Emaita izan da ez tula egitean ez dagoela alde nabarmenik maskararik gabe, maskara kirurgikoarekin edo kotoizko maskarekin. Gainera, kutsadura handiagoa zegoen maskararen kanpoko azalean, gehien ukitzen dena, barnekoan baino. Laburbilduz, badirudi maskara kirurgikoak eta kotoizkoak ez direla eraginkorrak COVID-19 duten pazienteek birusa zabal ez dezaten ingurunera eta maskararen kanpoaldera.

3. Beste ikerketa batzuek (Lee 2008, Oberg 2008) frogatzen dute N95 maskarek eta maskara kirurgikoek partikula biralak erraz pasatzen uzten dituztela.



4. Australiako ikerketa batek (MacIntyre 2015) ehunka osasun-langilerengan egiaztatu zuen bi geruzako oihalezko maskarek eta hiru geruzako maskara medikoek partikulen % 97 eta % 44 pasatzen utzi zutela, hurrenez hurren. Egileen arabera, emaitzek oihalezko maskarak erabiltzearen arriskuez ohartarazten dute: "Hezetasuna atxikitzeak, oihalezko maskarak berrerabiltzeak eta iragazketa eskasak infekzio-arriskua areagotu dezakete. Ikerketa gehiago behar da munduan oihalezko maskaren erabilera orokorra gomendatzeko".

Gaixotasunak Kontrolatzeko Europako Zentroak (ECDC 2020) ez du argi adierazten maskarak nahitaez erabili behar diren ala ez, eta hurrei buruzko aipamen bakar batean ohartarazi du "zenbait herriar-taldek (adibidez, hurrek) edo arnas gaixotasun kronikoa duten pertsonak ez dituztela maskarak ondo onartzen".

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME 2020) maskara eramatea gomendatzen du (maskara mota zehaztu gabe), soilik COVID-19ko gaixo bat zaintzen ari bazara edota zu zeu gaixo bazaude edo ez tula baduzu, eta ohartarazi du eraginkorrak direla soilik eskuak maiz garbitzearekin konbinatzen badira.

OMEn esaldi literalra, 2020ko apirilaren 6koa: "Pertsona osasuntsuek komunitate-ingurune batean maskarak (medikoak nahiz bestelakoak) erabiltzeak (komunitate batean maskarak modu unibertsalean erabiltzea barne) ez du saihesten arnas birusak transmititzea, COVID-19a barne".

Haurrak, oro har, eta bereziki kalera irteten ari direnak, COVID-19ko gaixoak zaintzen ari al dira? Ateratzen ari diren haurrak koronabirusaz gaixorik al daude?

Azken kasu horretan, sukarra izaneko gero eta ez tula eginez gero, ez da zuhu-

rra kalera irtetea: pediatriari galdetu behar diote. Kalera ateratzen diren hurrek ez dute betetzen maskarak eraman behar izateko OMEk ezarritako baldintzetako bakar bat ere.

Nolanahi ere, biztanleriak maskara erabiltzea ez da eraginkorra, eta umeei jartzea kaltegarria izan daiteke. Ez dago azterketa erabakigarriarik, helduei maskara gomendatzen dienik, eta are gutxiago haurrentzat. Horregatik eskatzen dut, mesedez: ez jarri maskararik seme-alabei.

Utzi haurrak aire librean arnasa hartzen. ●

Jose Maria Paricio osasun sistema publikoan 40 urtez aritu den pediatra da, eta edoskitzearen aldeko erreferenteetako bat Espainiako Estatuan.

TALAIMENDIKO TXALETA

11 suite, hamaika salaketa

Zarauzko EAJko zinegotzi baten familiak naturgune babestuan eraikitako etxe puskak bost urte beteko ditu ikerketapean aurten. Legea interpretatzen dihardutenak ez dira ados jartzen, eta epailez, instrukzioz eta dena delakoz aldatuta ere, bakoitzak bere etxean jarraitzen du deklaraziorik egin gabe. Azkenekoz, abenduan artxibatu zuen kasua hirugarren epaile batek behin-behinean, aurreko epaileak egindako hanka-sartzeak behartuta. Kasua zertan den errepasatuko dugu.

 GORKA PEÑAGARIKANO  SOS TALAIMENDI

Playa de moda zioen Zarauzko (Gipuzkoa) herrian turismoa sustatzeko 1929 urtean eginiko kartel batek. “Kantauri itsasoko zabalena”, irakur zitekeen behelaldean. Luxua aipatzen zen orduan ere. Zarauzko hondartza bezain zabala da etxebizitzek osatzen duten lehen lerroa, asko eta asko turisten alokairura bideratuak, kokaleku ederrean eraikiak. Badirudi jada lehen lerro horrek ez duela gizakia asetzen; bada itsasoaren gainean, ziurrenik herriak duen begiralekurik ederrenean, beretzat lekua hartu nahi izan duenik ere. Urteetako soka luzea ekarri du, ordea, Talaimendi magalean, naturgune babestuan, eraikitako etxe edo eraikinak. Urtez urte, epaitegiz epaitegi eta epailez epaile, gogor tenkatu den soka luzea. Hura askatzea eta kontua argitzea zinez korapilatsua egiten ari zaio salaketa ipini zuen Gipuzkoako Aire Kirol Federazioari.

Aia herriaren lurretan da Amezti baserria, Zarautz eta Orio banatzen dituen mendi edo muinoan. Baserriak urte asko zeraman abandonaturik, eta 2010 urtean, baserriaren jabe den Garrastazu familiak Aiako Udalari hura eraberritzeko lizentzia eskatu zion. Bi urte geroago beste lizentzia baten eskaera egin zuten, beste eraikin bat egin ahal izateko leku

berean. Bi lizentziak onetsi zituen Aiako udal gobernuak (Igor Iturain zen alkate; EAJ), nahiz eta ondoren frogatu –eta udalak onartu– proiektuak ez zuela udalaren urbanizazio legea betetzen. Jabeek ez zuten baserria eraberritzeko edota eraisteko proiekturik aurkeztu; eraikin berriarena soilik aurkeztu zen.

Ibilbide judizial luzea
izaten ari da kasua,
gaur egun lau ikerketa
daude irekita

Inguruetako herritarrek estimuan duten naturgunea da aipagai duguna, oinezko, bizikleta zale edota parapentean aritzen direnak ez dira gutxi izaten. Azken hauek gaur egun eraikina dagoen gunea baliatu izan dute euren jarduna praktikatzeko azken 30 urteetan. Otsailetik ekainera izan ezik urte osorako baimenduta zuten, izan ere, tarte horretan *falco peregrinus* belatz espezie babestua habitatzeko eta ugaltzeko erabiltzen du gunea.

Etxearen eraikuntza prozesuaz aurrez jakitun eta kexu izanda ere, parapente zaleek 2015eko maiatzean sorpresa eraman zuten eraikinaren ingurua guztiz hesituta, eta hesia eraikinetik oso urrun, aurkitu baitzuten. Leku publikoa pribatizatu izana salatu zuten sare sozialetan. Aranzadi Zientzia Elkartea ere hesituraren aurka azaldu zen, eta Gipuzkoako Aire Kirol Federazioak salaketa jarri zuen epaitegietan.

Etxebizitza baino, eraikitzen ari zirena *hotela* zela salatu izan du parapente zaleek sortutako SOS Talaimendi plataformak. Eraikinak hamaika logela, beste hainbeste bainugela eta sekulako sukaldea ditu, hotel baten pare. Hamaika logela edukitzeaz, Aiako Udalak adierazi zuen “ezohiko familia konposizioarengatik” dela, hamaika anai-arreba direlako. Salatzaileek diote, bestetik, eraikin berriaren oinarriak bikoiztu baino gehiago egiten duela baserri zaharrak zituen metro karratuak: 183tik 469ra. Horixe bera da salaketak duen oinarriarik garrantzitsua: baserria eremu babestuan kokatzen denez, Aiako Udalaren urbanizazio legeek diote eraikina eraberritu edo gehien jota berreraiki daitekeela –egoe-ra kaskarrean aurkitzen bada–, baina 50 metroko erradioan. Eraikin berriak



Hamaika logela ditu eraikinak. Udalak dio "ezohiko familia konposizioagatik" dela; salatzaileek hotela dela diote.



Ez zen lizentziarik aurkeztu Amezti baserria eraisteko edo eraberritzeko, eraikin berriarenak soilik aurkeztu ziren (2010).

antzerako neurriak mantentzeko agintzen du Eusko Jaurlaritzaren hirigintzari eta lurzoruari buruzko 2/2006 legearen 28.4 artikulua. Plataformak dioenez, eraikin berria gutxienez 200 metrora kokatzen da. "Berritzea" zer den, hor dago gakoa.

Hamaika anai-arrebaz osatuta dago eraikinaren jabe den familia. Senidetako bat Maite Garrastazu da, lizentziak eskuratu eta eraikuntza egin zutenean Zarauzko Udaleko hirigintza eta obra zinegotzia zena (EAJ). SOS Talaimendi plataformak EAJk gobernatzen zituen Zarauzko eta Aiako Udalei "elkarlanean irregulartasunak egiten" aritzea leporatzen die.

TRABAK EPAITEGIETAN

Ibilbide judizial luzea izaten ari da kasua. Gaur egun lau ikerketa daude irekita: bi pausatutik daude –horietako bat erabaki penalaren zain–, bide administratiboko bestea badirudi aurrera egiten ari dela eta, azkenik, abenduan behin-behinean artxibatutako bide penala irekitzeko eskatu dute salatzaileek.

2015ean jarri zuen lehen salaketa Gipuzkoako Aire Kirol Federazioak, eta Azpeitiko lehen Instrukzio Epaitegiak bide penala ireki zuen lurrak bidegabe erabiltzeagatik; Garrastazu zinegotzia prebrikazioa egotzita ikertu zuten. Urtebete geroago, kasua behin-behinean artxibatu zuten lizentzia legezkoa zela argudiatuz. Epaiarekin ez ziren kontent geratu salatzaileak, izan ere, ez zen aztertu lurgune babestuan etxebizitza berri bat eraikiko zenik, eta beraz, Gipuzkoako Auzitegian errekurtsioa jarri zuten.

Bi aldiz eskatu zen epaiketaren epea zabaltzeko; bi urte behar izan zituen Gipuzkoako Auzitegiak epai irmoa emateko. Bitarte horretan Arartekoa eraikinaren aurka azaldu zen, Eusko Jaurlaritzaren legeei men eginda, "bidegabekeria handia" zela esanaz. 2018ko uztailan Gipuzkoako Auzitegiak probisionalki artxibatu zuen kasua, "eraikin aldaketa" zela argudiatuz eta ez "eraikin berria".

Honela jarraitzen du epaiak: "Eusko Jaurlaritzaren lurzoru legeak ez du zehazki debekatzen eraikina lekuz alda daitekeenik, baina Aiako udal legeek baimentzen dute. Beraz, zaila egiten da

jakitea obra lizentzia hori administrati-boki irregularki eman den, arbitrarioki eta engainatzeko intentzioarekin; hori litzateke prebarikazio urbanistikoa (...) Ez da berreraikitze gisa kontsideratzeko zantzurik aurkitu”.

2017ko martxoan Azpeitiko bigarren Instrukzio Epaitegia sartu zen joan, ordura arteko hirugarrena: orduan ere martxan zegoen Gipuzkoako Auzitegian administrazioarekiko auzi-prozesua. Aiako Udalak eraikinerantz hartzeko urbanizazio lanak egiteko eta inguruan zuhaitzak landatzeko baime-na eman zuen inolako lizentziarik aurkeztu gabe –kexu dira etxearen ingurua pribatizatu dutelako, ingurua “itxi” dutelako–; hori zen ikerketa berri hau irekitzearen arrazoia. 2016ko abuztuan lanak gelditzeko agindua eman zuen udalak. Ordurako, egin beharrekoak eginda zeudela salatu zuen SOS Talaimendik. Ikerketa honetan Garrastazu familiako bi kide –zinegotzi izandakoa ez–, 2015etik Aiako alkate den Nekane Arrizabalaga (EAJ), aurreko alkate Igor Iturain eta udaleko idazkaria, arkitektoa eta aparejadorea ziren akusatuak.

SOS Talaimendi
plataformak EAJk
gobernatzeko zituen
Zarauzko eta Aiako
Udalei “elkarlanean
irregulartasunak egiten”
aritzea leporatzen die

Epea urtebetez luzatzeko eskatu zuen Maria de Blas epaileak ikerketa ireki bezain pronto, 2018ko irailaren 3ra arte. Gipuzkoako Auzitegiak 2018ko uztailaren bide penaletik zihon kasua artxibatu ondoren hasi ziren mugimenduak Azpeitiko bigarren Instrukzio Epaitegian: Arrizabalaga alkatea akusatuen aulkitik kendu zuen epaileak, eta lau akusaturekin geratu da kasua orduz geroztik. Abuztuaren 30ean, instrukzio epea amaitu baino egun gutxi lehenago, epaileak auto baten bitartez adierazi zuen lehen eta bigarren Instrukziozko Epaitegien kasuak “kon-tu bera” zirela, eta kasua ez zegokiola



berari, baizik eta alboan zuenari. Izapiderik egin gabe hanka egin nahi izan zuen, baina Gipuzkoako Fiskaltzak ez zuen baimendu. 2018ko abenduan, lau urteren ostean, bost inputatuak deklaratzera deitu zituen 2019ko martxo-rako.

Ez zen deklaraziorik egin. Akusatuak adierazi zuten instrukzio judizialaren epea irailean amaitu zela, eta arrazoi zuten; izan ere, Gipuzkoako Auzitegiak Maria de Blas epailea jo zuen errudun epea luzatu ez izanagatik. Epailez aldatu eta azaroan kasua behin-behinean artxibatzea erabaki zuten, beste behin.

ATEA ZABALIK

“Denbora galdu dute Azpeitiko instruktoerek”, dio Asier Garate Gipuzkoako Aire Kirol Federazioko abokatuak. Aurreko epaileari salaketa jarri diola ere iragarri du. Hala eta guztiz ere, ontzat jotzen du behin-behineko artxibatzea: “Epaile berriak dio ezin dela jarraitu auziarekin ez dagoelako dilegintziarik aplikatuta, baina ez dio zantzurik ez dagoenik; ate bat zabalik utzi du eta baliatuko dugu”.

Gipuzkoako Batzar Nagusiei galderak luzatu dizkiete erantzukizun eske,

eta bestetik, abenduaren 12an kasua berrartzeko parte berri bat aurkeztu zuten. Honakoan beste bi protagonista sartzen dira auzian: Xabier Txurruka (EAJ) Zarauzko alkatea eta udal teknikari bat ur eta bestelako hornidurak esleitzeagatik kasua ikerketapean zegoenean, 2015 eta 2016an –udal gobernuak ez du ARGIArekin hitz egin nahi izan–. Urtarrilean onartu zuen Adrian Camara epaileak salatzaileek eginiko eskaera, baina erreportajea idazteko unean kasuak ireki gabe jarraitzen du.

Auzia bide administratibotik soilik tratatzea ekidin nahi dute salatzaileek: “Udala zigortzen badute eraikina eraistera edota kalte-ordainak ordaintzera, guztiok gure poltsikotik jarriko dugu. Lotsagarria litzateke. Eta bestetik, bistakoa eta agerikoa litzateke, eta ulertezina kasu horretan, epaile batek ebaztea urbanizatu ezin den gune batean lizentzia ilegal bat eman dela. Horrek esan nahiko luke zigor kodeko 329 artikulua urratu dela: ingurumena prebarikatzearen delitua”. Zigor kodeko artikulua interpretatuz gero, espetze zigorrak eta inhabilitazioak egon daitezke prebarikazio administratiboagatik. ●

'ADITU' TEKNOLOGIA

Hizketa instant batean testu bihurtzen du

Hitz egin iezaiozu ordenagailuaren edo mugikorraren mikrofonoari eta idatzizko testua emango dizu bueltan. Lehendik grabatutako audio eta bideo fitxategiekin ere berdin egiten du. Hainbat hizkuntzatan zegoen teknologia euskaraz eskaini du Elhuyar Fundazioak. Gaztelaniazkoa ere egin du, eta laster ingelesezkoa eta frantsesezkoa eskaintzeko moduan izango da.



ONINTZA IRURETA AZKUNE

Aditu hizketa ezagutzailea da. Audio eta bideo fitxategiak hartu eta idatzizko testua eskainiko du. Interneteko audio eta bideoen estekak ere hartzen ditu, alegia, Youtubeko, Facebookeko edo Instagrameko edukiekin ere gauza bera egiten du.

Idatzizkoa hainbat modutara erakusten du: transkripzioaren testua bere horretan; bideoetarako eta prestatuta azpigituluaren fitxategia; eta transkripzioa hitz bakoitzaren denbora-markekin, alegia, bideoetan bilaketak egin daitezke, hitzez gain denbora-marken arabera.

Azkar egiten du hizketatik idatzirako jauzia, eta beraz, zuzenean egin daiteke ariketa. Mikrofonoari hitz egin eta instant batean irakur daiteke idatzi duena.

ZEIN EGOERATAN DABIL ONDOEN?

Ikus-entzunezko eduki askorentzako baliagarria da. Albistegiatarako, dokumentuatarako, elkarrizketatarako balio dezake. Kasu horietan azpigituluak sortuko lituzke Adituk. Irratien audio grabazioak transkribatzeko ere balio du. Antxetamediarekin ari da lanean adibidez Elhuyar. Irratia izaki, Antxetak elkarrizketak eta erreportajeak ipintzen ditu bere webgunean. Asmoa da horietako audio grabazio batzuk idatzira ekartzea eta idatzizko bertsioa ere irakurleei eskaintzea.

Beste aplikazio eremu bat erakunde publikoena da: udal batzarrek, legebil-

tzarreko agerraldiak eta era horretako hitz-hartzeak idatzira ekar daitezke. Testua momentuan erakuts daiteke edo gorde egin daiteke. Momentuko komunikazio harremanari so eginez gero, hizketa ezagutzailea beste hizkuntza teknologia batzuekin uztartuz gero, aukera berriak sortzen dira. Jar dezagun adibide bat: udal batzarra internetez jarraitzen ari dira herritarrak, udal ordezkariak hizketan ari diren neurrian idatzizko testua ikusten ari dira; era berean, Elhuyarrek duela gutxi aurkeztu duen itzultzailea.eus itzultzaile neuronalaren bidez euskaraz jasotako testua gaztelaniara itzul daiteke. Eta harago joko bagenu, gaztelaniaz jaso den testu hori audio bihur daiteke. Oraindik ez dago aplikazio hau garatuta, baina egingarria da.

Gorrentzako eta desgaitasun fisikoak dituztenentzako baliagarria da. Bestelako erabilerak ere izan ditzake; Igor Leturia Adituren arduradunak azaldu digu nola bateren batek aipatu dion autoan erabiliko lukeela. Laneko kontuak aurre-ratzearen, autoa gidatzen ari diren bi-tartean mugikorrari hitz egingo liokete eta Adituk testu bihurtuko luke. Alegia, txostena ordenagailuan idatzi beharrean auto-bidaia baliatu mugikorrari txostena hitzez kontatzeko eta instant batean testua izango luke eskutan. Ez dute probarik egin eta ez dakite nolako emaitza emango lukeen.

NOIZ EZ DABIL ONDO?

Elhuyarrek Adituren webgunean hainbat demo jarri ditu norberak egiaztatu dezan zein emaitza lortzeko gai den gailua. EAEko lehendakariaren urte amaierako hitzaldia, udal batzar bat, *Teknopolis* telebista saioa, ikus-entzunezko dosi bat, eta aldibereko ariketa bat erakutsi ditu. Emaita oso txukuna da, nahiz eta oraindik akatsak egin. Testua orraztu behar da. Dena dela, tankera horretako audio eta bideo grabazioetan emaitza onak lortzen ditu, baina mugak ditu, eta beti ez ditu lortzen demo horietako emaitzak.

Audioak kalitate ona izan behar du, larri ibiltzen da mikrofono ona ez bada erabiltzen, edo oihartzuna badago, edo bat baino gehiago hizketan ari badira. Hitzuna bat-batean ari bada eta hitzak erdizka uzten baditu, atzera egiten badu, gero gelditu... horrelako hizketaldiak ondo jasotzeko arazoak daude. Kazetariaren elkarrizketak balio du adibide gisa. Emaita oso desberdina izango litzateke kazetariak pertsona bakarrari egingo balio elkarrizketa etxeko egongelan eta grabagailu on batekin, edo bi-hiru lagun elkarrizketatuko balitu eta musika jarrita dagoen tabernan. Emaita ona lortu nahi bada audio kalitateari erreparatu behar zaio, eta baita hitzunen hizketa moldeari ere. Euskara batu-rako hobeto prestatuta dago, euskalkiak ez ditu hain ondo harrapatzen. ●

OLATUKOOP

BIZI HOTSA ERRESISTENTZIA KUTXA MARTXAN DA

Hainbat gizarte-eragilek, kolektibo feministak, antiarrazistak eta anti-kapitalistak, sindikatuk eta euskal kooperatiben sareek erresistentzia kutxa bat jarri dute martxan "COVID19ak areagotu duen ofentsiba neoliberalari erantzuteko". 60.000 euro lortzea dute lehen erronka, 15 kolektiboren oinarritzko beharrak bermatzeko.

"Ez da osasun krisia bakarrik, krisi horren kudeaketa da egungo nekropolitika areagotzen duena, eta horrek gizarte ezberdintasunak handitzen ditu, komunitateen zaugarritasuna larrituz" adierazi dute ekimenaren sustatzaileek. Horregatik, BiziHotsa jarri dute martxan, erresistentzia kutxa gisa funtzionatu-ko duen plataforma. Informazio osoa **www.bizihotsa.eus** webgunean dago ikusgai.

Bilketa Coop47 Fundazioaren bidez egingo da. Dohaintzak desgrabatu ahal izango dira eta gardentasun fiskala ziurtatuko da. Dirua bi modutan jasoko da. Dohaintza handien eta hitzarmenen bidez eta crowdfunding masibo baten bidez. Hemen egin daiteke ekarpena: **https://bizihotsa.coop57.coop/eu** webgunean. ●



Babesa lagunak ematen digu

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Gobernuaren eskumenak ugariak dira. Gobernuari men egiten dioten eskuak bezainbat. Dena ez da, ordea, alarma egoerarekin Madrildik edo Paristik kontrolatzen. Urkulluk nahi lukeena baino gehiago bai, bistan da, baina dena ez. Mugitu ez diren eskumenak, baina, ez dira euskal politikarien ardurapean geratutakoak. Hemen geratu diren eskumenak urteetan zehar herrigintzatik eta gizarte mugimenduetatik sortutako taldeenak dira. Gobernu batetik bestera pasa ezin diren eskumenak.

Asko izango dira, bakoitza bere arlotik, egoera berri, berezi eta ezezaguna kudeatzen ari direnak. Guk Olatukoop-ekin hitz egin dugu, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailean (ESE) oinarritzen diren enpresa-sarearen parte baita ARGIA ere. Zer neurri hartu ditu taldeak? Zein da kide bakoitzaren egoera?

Lehen kolpean, sortu dute "Emergentziazko Elkartasun Mahaia" izendatutako komisio berezia COVID-19ak eragindako krisiaren aurrean eta Olatukoop osatzen duten enpresa guztiei deitu diete banan-bana euren egoera ezagutzeko. Prozesu hori bukatuta, argitaratu dituzte hainbat artikulu eta baita dekalogo bat ere. Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearentzat momentu klabea dela diote, ekonomia eta zifra hutsen aurretik pertsonak jartzen dituzte zaintza erdigunera era-

manez, sorreratik dute diskurtso landua horretan, eta munduak dardara egin duenean agerian geratu da hori. Taldea osatzen duten enpresa eta elkarten sentsazioa komuna dela azpimarratu dute, denek moldatu behar izan baitituzte ordutegiak, etxetik lan egin beharrak dakartzan konplikazioak, ingurukoen zaintza...

Enpresa bakoitzak egokienak iruditu zaizkion neurriak hartu ditu, bere jardueraren arabera. Olatukoop-eko partaide gehienek modu partzialean bada ere lanean jarraitzen dute eta gutxi batzuk dira ERTEan sartu direnak. Ari dira taldearen alde emozionalak zaintzen, ekipoa lan egin duenak (berdin lanean, kirolean, herri mugimenduetan...) badaki zein garrantzitsua den denak indartsu egotea.

Martxora arte ESE eta Olatukoop bera oso modu kontzeptualean, oso modu teorikoan ezagutu ditugu, baina orain ari dira erakusten ze inportantea den artikulatuta egotea eta artikulatzeko gaitasuna izatea. Denbora kontra doanean ere, sareta beti da sare. Krisi garaietan, izan ekonomikoa, emozionala, pertsonala edo kolektiboa, errazago aterako da zulotik ingurua duena, bidelagunak dituen eta babesa duena. Eta babes hori ez da Gasteiztik, Baionatik, Iruñetik, Paristik edo Madrildik iristen, babesa lagunak ematen digu. ●

**'Emergentziazko
Elkartasun Mahaia'
izendatutako komisio
berezia jarri du martxan
Olatukoop-ek, eta bere kide
diren enpresa guztiei
deitu diete banan-
bana euren egoera
ezagutzeko**

Merkataritza bidaia Lurraren bihotzera




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Londres, 1692. Edmund Halley (1656-1742) astronomo, matematikari eta fisikariak, bere abizen daraman kometaren orbita kalkulatzegatik ezaguna, Lur barnehutsaren kontzeptua proposatu zuen lehenengoz. Halleyk iparrorratzaren irakurketa anomaloak azaldu nahi zituen eta hainbat eremu magnetiko zeudela iradoki zuen. Lurra, barrutik, atmosferak bereizitako lau esfera huts zentrokidek osatzen zuten, eta esfera bakoitzak bere eremu magnetiko propioa zuen. Gainera, azken esfera, barru-barrukoa, populatua zegoela uste zuen.

Halleyren teoria horrek ez zuen biderik egin zientzian, baina fikzioan bai, ordea. Emaizarik ezagunena Jules Verneren *Lurrraren bihotzeraino* (1864) da. Baina, hori baino lehenago, 1741ean, Halley bera artean bizirik zela, Ludwig Holberg idazle norvegiarrak *Nicolai Klimii iter subterraneum* (Nikolas Klimsen lurrazpiko bidaia) eleberrian lurraren bihotzean bizi zen jendarte utopikoa izan zuen hizpide.

Eta, hala ere, Halleyren proposamenak inolako oinarri zientifikorik ez zuela garbi egon arren, 1818an Lur barnehutsaren teoriaren jarraitzaile sutsu bat azaldu zen AEBetan. John Cleves Symmes Jr. (1780-1829) militar eta merkataria funtsezko ezaugarri bat gehitu zion teoriari: poloetan irekia zegoen Lurraren esfera, handik sartzen zen barruko zibilizazioak behar zituen



JOHN CLEVES SYMMESEK 1818AN BIDLITAKO GUTUNAREN SARRERA, LURRAREN BIHOTZERA JOATEKO ESPEDIZIOA PROPOSATZEN ZUENA.

argia eta berotasuna, eta, bere gidaritzapean, handik sartuko ziren Lurrazaleko esploratzaileak. Interes zientifikoaz gain, Symmesen proiektuak interes ekonomikoa ere bazuen, lurpeko biztanleekin merkataritza harreman etekintsuak abiatzeko asmoa baitzeukan. "Hitzematen dut nire bizitza horretan emango dudala eta, munduak laguntzen badit, hutsa esploratzeko prest nago" esan zuen.

Baina munduak ez zion lagundu. Eskutitzak bidali zizkien "atzerriko gobernu nabarmen guztiei, munduko printze, hiri, unibertsitate eta elkarte filosofikoei". Gutun horretan zehazten zuen 100 esploratzaile beharko zituela espedizioan, Siberiatik abiatuko zela udazkenean, lerak eta elur-oreinak lagun, Ipar Poloko zulotik sartuko zirela, eta hurrengo udaberrian itzuliko zi-

rela. Hamar urtetan ez zion inork erantzun.

1828an, ordea, proiektua finantzatzeko prest zegoen agintari eszentrikoa topatu zuen: John Quincy Adams (1767-1848) AEBetako presidentea. Ideia zelebre break bere egiteko joera izan arren, Adamsen alde esan behar da naturari eta zientziari garrantzi handia eman ziela, berari zor diogula, besteak beste, Smithsonian institutuaren sorrera, eta soilik Symmesen espedizioaren lehen fasea, Ipar Poloa esploratzea bera, helburu handia zela garai hartan. Baina hurrengo urtean, 1829an, bi gertakizunek bertan behera utzi zuten ekimena: batetik, Adams ez zuten berriro presidente aukeratu; eta Symmes urte hartako maiatzaren 28an hil zen, poloetako zuloetan zer zegoen ikusteko aukerarik gabe. ●

DELAWARE HISTORICAL SOCIETY



ALEXANDER PRYOR

Mamut hezurrez egindako aterpea

Errusian, Konstanski eremu arkeologikoan, Exeterko Unibertsitateko (Ingalaterra) arkeologo talde batek 25.000 urteko eraikin zirkularra topatu du, 12 metroko diametroa duena eta 60 bat mamuten hezurrez egin. Lehenago ere, 50eko hamarkadan, horrelako beste bi egitura aurkitu zituzten, eta etxebizitza moduan erabiltzen zirela uste zen. Baina, barruan egurra erregai modura erabili zutela garbi dagoen

arren, epe luzeko okupazioa adierazten duen tresna edo bestelako arrastorik ez dute aurkitu. Gainera, egitura hauek eraikitzea oso neketsua eta garestia zen, etxebizitza soilak izateko. Horregatik, eraikinaren azterketak oraindik erantzunik ez duten hipotesiak sortu ditu: aterpeak helburu erritual edo erlijiosoak zituen? Ala eskasia garaietarako prestatzeko janari biltegi moduan erabili zuten? ●

ZUMETA ETA SAGARRETA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gure kulturako beste handi bat joan zaigu, Jose Luis Zumeta. Gure belaualdikooi, gazte denborako eta ondorengo jakintza ongarritu zigun beste bat. Usurbilen bagenuen sortzaile talde izugarri bat: Jose Luis bera, Alejandro Tapia, Jesus eta Joxanton Artze anaiak. Artean, baina batez ere bizitzearen artean ikasi dugu haiekin. Obraz, hitzaz eta ekin-tzaz ikasi dugu haiengandik. Beren lana, lanegina, egintza eta egikera; dena izan dugu ikasgai. Bazekiten bai erakustun izate; denekin maisu eta lagun. Maisulana.

Ez dut berehalakoan ahaztuko Zumeta herriko errebote plazaren horma nagusiaren atzeko alderako zeramikazko irudi handia egiten ari zenean haurrok nola joaten ginen bere lantegira bisitan. 1973ko data du idatzia. Hilabeteetako lana izan zen, eta ez genuen ondo ulertzen zer zen lurtean zabalduetako kolore bizitako trikote zikulusaltsa hura; herriarren artean makina bat kontu sortu zuen. Gero, 144 metro koadroko artelana zutitu zenean mututu egin gintuen. Mututu beharko, izan ere ez dago hitzik hura adierazteko. Artelan erraldoi horrek erreboteko horma bisagra bihurtu eta Goiko Plaza esaten zaion errebote plaza eta haren oinean eraiki zen plaza berria lotu zituen. Gaur egun Mikel Laboa Plaza du izena azken horrek, eta Zumetak berak diseinatu zuen. Beste inon ere ez ziren burdinazko jostaleku-egitura galant batzuek janzen zuten plaza berria, tartean bi konkorrerako txirrista luze sonatua zuena. Plaza horrek duen forma bera ere artelan ikusgarri bat da.

Mikel Laboa plaza
Zumetak diseinatu zuen.
Bertako sagarrondoak
Zumetak utzi digun
lan izugarri horren
koloreen osagarri dira.
Jose Luis sagarrondoak
loretan direla joan zaigu



Plaza horretan zuhaitz gutxi batzuk daude, baina ez edozein, ederki asko hautatutakoak. Hagina (*Taxus baccata* "Fastigiata"), gure kulturako zuhaitz esanguratsuenetakoa eta mende batzuk lehenago herrigune hori eraikitzeke garaian aginagarrek izan zuten garrantzia gogorarazten duena. Lizarra (*Fraxinus excelsior*) zuhaitz sakratua; bazka, zura eta egurra eta babesa ematen diguna. Ginkgoa (*Ginkgo biloba*), zuhaitz exotiko baina era berean apaingarria, historikoki esanguratsua, botanikariei, arkitektoei eta lorazainei burura egiten dien forma duena. Urki dilindari (*Betula pendula*) bat ere bada plazan; bigarren bat ere bazen, baina aldameneko etxekoei enbarazu egiten zien, eta pixkanaka akabatu egin zuten. Plaza eraiki zenean bazen hosto gorriko astigar zorrotz bat ere (*Acer platanoides* "Crimson King"), baina ez zen sekula bertako baldintzetara makurtu eta, figura eskasa zuenez, epaitu eta bota zuten. Usurbildar guztion lotsagarrri, azken horien zuloak edo txorkoak hor daude hutsik eta ginkgoari aurren zentzugabeko inausketa bat egin zaio.

Zuhaitz eredugarrien sorta hori osatuz plazaren ingurua eraberritu zenean (2012-2014), sagarrondoak (*Malus* "Evereste") landatu ziren. Sagarrondo berezi horiek loraldi izugarria dute, eta hostoak erortzean arbola guztia sagar gorri ttikiz jantzita geratzen da udaberrira arte. Sagarrondo horiek Usurbildarren sagargintza eta sagardogintza kulturari ohore eta, nola ez, Zumetak utzi digun lan izugarri horren koloreen osagarri dira. Jose Luis sagarrondoak loretan direla joan zaigu. ●

Ostegunero
kontsultategia
18:00etan

Ostegunero 18:00etan landare kontsultategia egiten du Jakoba Errekondok zuzenean, www.argia.eus webgunean edo **Facebook**eko Bizi Baratzea orrian.

Bidali zure galderak aurrez:
landarekontsultategia@bizibaratzea.eus

'ERROA ETA GEROA' DOKUMENTALA

BASERRIKO BIZIPENAK EMAKUMEEN AZALETIK KONTATUAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



EHNE Bizkaiak eta EHuko Hegoa Institutuak 2017an antolatutako “Baserritik mundura” ikastaroan ezagutu zuten elkar *Erroa eta geroa* dokumentalaren egileek. Euskal Herriko hainbat herritako emakume baserritarren bizipen eta kezak jasotzeko helburuarekin ikerketa abiatu zuen orduan Sorginatxurak lantaldeak: Vane Calvo, Nadia Ayuso, Zuriñe Perales, Ane Gorosabel, Mirene Begiristain eta Maribi Ugartebutu zeuden ekimenaren atzean. Behin ikerketa amaitutakoan, emakume baserritar horien historiak belau-naldi gazteekin nola konektatu pentsatzen jarri ziren eta ikus-entzunezkoen munduan zebiltzan Itziar Bastarrika eta Ainhoa Olasorekin egin zuten topo. “Ikerkuntzak berak beste forma bat hartu zuen orduan”, azaldu du Peralesek. Dokumental forma, hain zuzen.

EMAKUMEEI AHOTSA EMANEZ

“Ikerketarekin hasi ginenean gure inpresioa zen baserriaren historia beti gizonetzkoen ikuspegitik kontatua izan dela, eta horregatik, emakumeei beraiek nola bizi izan duten eta gaur egun nola bizi duten kontatzeko aukera eman nahi genien”, dio lantaldeko kideak. Euskal He-

30 urtetik 90 urte arteko emakume baserritarrak daude elkarriketatuen artean. Baserrian eman den aldaketan pentsarazteko ere bide ematen du: nondik nora egin den bidea, nola zen lehen eta zertan dagoen gaur egun...

rriko txoko eta adin ezberdinetako hamabi emakume baserritarren bizipenak, kezak eta aldarrikapenak bildu dituzte ordu erdi inguruko dokumentalean. “Ikerketan gauza mordoa dago bilduta, eta dokumentala bildutako horren guztiaren pintzeladaxoa da”.

Baserriaren iraganaren eta orainaren arteko lotura ere egin dute lanean, izan ere, 30 urtetik 90 urte arteko emakume baserritarrak daude elkarriketatuen artean. “Baserrian eman den aldaketa

horretan pentsaraztea ere badu asmo lanak, nondik nora jo dugun, nola zen lehen eta zertan gabiltzan gaur egun...”. Horrez gain, galdu diren edo galtzen ari diren zenbait ezagutza eta modu berreskuratzeko gakoak ere ematen dira, auzolanaren kulturari edota ekoizpen ereduari dagozkionak, adibidez.

EMAITZAREKIN ETA ERANTZUNAREKIN POZIK

Urte eta erdiko ikerketaren ondoren, 2018ko udan egin zituzten dokumentalaren grabaketa lanak eta 2019ko udazkenean bukatu zuten muntaketa. Geroztik, Euskal Herriko hainbat txokotan izan dira dokumentala aurkezten, eta harrerarekin oso pozik dago Perales: “Jende nagusia, eta bereziki emakumeak, oso eskertuta azaldu zaizkigu, beraien ikuspuntua azaltzeko aukera eman diegula”.

Koronabirusaren krisiak zenbait aurkezpen bertan behera uztera behartu badiu ere, aurrera begira espero dute herri gehiagotara iristerik izatea. Bitartean, eta konfinamenduko denbora norbaitek aprobetxatu nahiko balu, ARGIAren webguneko multimedia kanalean dago ikusgai *Erroa eta geroa* dokumentala. ●

DINAMOA SORMEN GUNEA

Baliabideak ematea da eragiteko modurik onena

Kultur kudeaketa. Bitartekaritza. Sormen guneak. Ideia faktoriak. Hitz potoloak dira, hiriburutzak eta gisako pandemiak zabaldu direnetik gure hiztegiaren parte bihurtu zaizkigunak. Baina bada hitz horiei guztiei bestelako esanahia emateko ahaleaginean ari den proiektu bat; espazio bat. Dinamoa du izena. Hasi berri du bere bidea, baina ez da bide luzeago bateko hurrengo pausoa besterik. Anbizio handikoa eta nazionala bezainbeste da irekia eta gertukoa. Ez dago Bilbon, ez Donostian, ez Iruñean. Azpeititik ari dira hainbat alorretako artistei lanerako behar duten hori eskaintzen.

Bistan da: garraio publikoa erabil-tzea da hautu ekologikoena. Baina nondik zatozen, litekeena da halako aukerarik ez izan eta autoa hartu behar izatea. Hala bada, lasai. Lehen-go bost orduetan behintzat, doakoa da eraikinaren azpiko aparkalekua. Ez pentsa kultur politika eskuzabal baten ondorioa denik. Soreazu antzokia eta orain Dinamoa esaten dioten sormen gunea diren eraikinak hutsik egon dira hainbat urtez; eta ordainpekoa zenean, ez omen zuen inork parkinga erabiltzen. Berdin dio. Kontua horixe baita: kotxez bazoaz ere izango duzula non utzi.

Demagun baietz, autoz ailegatu zarela bertara; behin bere lekuan utzita, asmatu duzula lurrazalerantz egiten duten eskaileren artean aproposena hartzen. Hiruki moduko plaza batean aurkituko duzu zure burua: ezkerrean, Soreasu antzokia; eta pare parean, antzokia bezalaxe beiraz eta hormigoiz eginda, beste sarrera bat duen eraikin bat. Horixe da Dinamoa sormen gunea.

TOPALEKUA, KAFEAREN BUELTAN

Txartel magnetiko bat behar da ate nagusia gurutzatzeko; edo bestela, txartela baduen inoren laguntza. Oztopo hori gaindituz gero, sarrera topatuko duzu lehenik. Lehen begi kolpean, badu modako *youth hostel* bateko harreraren tankera: garbia, minimalista eta ondo

hautatutako altzariz jantzia. Baina hau ez da hotel bat. Ez da –soilik– egoteko lekua, egitekoa baizik. Hau lanerako espazioa da. Baita topagunea ere. Hala deitzen diote sartu eta eskubira eginda dagoen gela zabalari. Edonork erabil dezakeen eremu bakarra da. Irakurtzeko, kafe bat hartzeko, lan-egiteko... Aurkezpenak, eskolak eta emanaldiak egiten dira bertan; liburutegi txiki bat dago; eta edozein topagunek behar duen gisan, badu kafe makina eta mikro-uhin labea ere. Gauza jakina da ideia asko eremu informaletan pizten direla.

EREMUAK DIZIPLINAKA BANATUTA

Dinamoa ondo ezagutzeko, eskaileretan gora egin behar duzu. Bertan antzematen da, egiazki, zer eta zertarako den; eta nola dagoen antolatua. Arte-diziplinak lau multzotan banatu eta eremu bana eskaini diete. *Hitzaren eremua* da gora iristerakoan muturren parean geratzen zaizuna. Bi gela ditu, bat zabalagoa, bi mahai handiren bueltan eskolak edo bilerak egiteko baliu duena; eta beste bat, txikiagoa, konzentrazioz lan egiteko aukera eskaintzen duena. Hitzaren Eskola izenekoa da, gaur egun, bertan martxan dagoen proiektu nagusia. Hitz hainbat ikuspegitik landu duten sei profesional ari dira, astez aste, euren jakintza hamasei ikaslerekin konpartitzen.

Eskaileretatik eskubira egiten baduzu bigarren eremuan –irudiarenean– barneratuko zara.

Bitan dago banatua: eremu garbia batetik, irudi digitalarekin lotua eta Azpeitiko Argazki Elkarteak erabiltzen duena; eta eremu zikina bestetik, hormak eta eskuak zikintzeko aukera ematen duten diziplina horiei guztiei eskainia. Txakur Gorria kolektiboak gidatu duen *Badirudi* ikastaroa egin da bertan. Prest dute hurrengoa ere: *Labana eta orbana*. Serigrafia eta silografia gisako teknikekin esperimentatuko dute laster, konfinamendua eta alarma egoera amaitzen badira behintzat.

GORPUTZA ETA IZERDIA

Irudiaren eremutik atzera egin, eta korridorearen amaieraraino jota iristen da *gorputzaren eremura*. Dinamoko espaziorik zabalena da, egurrezko oholtza beltzak eta beirazko horma gardenak edertzen dutena. Orain artean, *gorputzaren eremua* da Dinamoan izerdi eta lagun gehien pilatu duena. Arte eszenikoak lantzen dira bertan; antzerkia batik bat. Haurrentzako antzerki tailerra egiten da bertan, eta bada Amancay Gaztañaga aktorea gidari duen helduen taldea ere. Horrez gain, Soreasu antzokiarekin elkarlanean, Azpeitian egonaldia egiten duten antzerki konpainiek erabiltzen dute. Azken urtean han eta hemen oholzaratu diren hainbat obra ondu dira hemen, areto zabal honetan.

Aktoreek besteko izerdia botatzen du zenbait musikarik ere; baina oraingoz, Dinamoan ez dago haientzat pentsatutako espaziorik. *Soinuaren eremua* izango denak badu bere txokoa, ondo gordeta, baina ez dago prest oraindik. Dinamo bizirik dago, pixkanaka ari dira osatu, aldatu eta garatzen. Den-dena prestatu arte itxaron baino, nahiago izan dute daukaten hori zabaltzea eta dinamoa martxan jarri: zer piztuko duen...

EDUKIONTZIA BAINO GEHIAGO

Kontatutakoa da, gutxi-asko, Dinamoan bisita azkar bat eginez gero topa daitekeena. Baina hezurdurak ez du mamiaz nahikoa esaten. Sakonago arakatzeko, proiektu hau martxan jarri dutenekin dago hitz egin beharra. Aitor Bengoetxea *Ondarru* eta Xabier Gantzarain *Gantza* dira proposenak horretarako. Zientoka ordu eskaini dizkiote hormigoizko hormak bizitzaz janzteko lanari.

Azpimarratu beharrekoa zera da: proiektu bat aurkeztuz gero, edonork

erabil dezakeela Dinamo. Zabalik dagoela, proposamen bat egin, eta behar den eremu hori baliatzen hasteko. Hori da bertako erabiltzaile izateko bide bat; bestea, bertan eskaintzen diren ikastaro jarraituetan izen ematea. Oraingoz, behintzat. Sormen egonaldi ordainduetarako deialdiak egiteko aukera ere ari dira aztertzen. Hori guztia, hauspotu edo probokatzeko. Hori baita, Bengoetxearen hitzetan, Dinamoaren egiteko bat: “Gauzak etorri egiten direla esaten da, baina ez da beti horrela. Probokatu ere egin behar da: deialdiak egin, espazio bat eskaini, jendea harremanetan jarri”.

PROZESUA ETA EZ EMAITZA

Dinamoaren jardunean bada funtsezkoa den ideia bat: emaitzari beharrean, balioa prozesuari ematea. Zaintza eta baliabideak eskaintzen dituzte sormen prozesua garatzeko, emaitza zehatza zein izango den edo zenbateko oihartzuna izango duen gehiegi neurtu gabe. Artisten azalean jarrita, hala esan du Gantzarainek: “Badakigu, lanean ari zarenean, ez dagoe la beti begi kolpe batean ikus daitekeen emaitza ukigarri bat. Baina egin duzun lan horrek, bide horrek, emango du zerbait noizbait. Beste zerbait ekarriko du”. Horrek ez du esan nahi Dinamoan gara-





tzen diren proiektuek beren lana zabal-
tzeko moduak bilatzen ez dituztenik; bai-
na ez derrigor emanaldi edo erakusketa
baten bidez. “Bitartekaritza, hitzaldiak,
tailerrak... modu asko dago hemen egiten
dena herritarrei iristarazteko. Batzuetan,
harreman berri bat sortzea da ekarpenik
handiena”.

SORTU ADITZA PLURALEAN JOKATZEN DA

Lau eremutan –bat bidean badago ere-
banatzen da Dinamoia, lanerako lehen-
gaiaren arabera. Horrek ez du esan nahi,
ordea, eremu bakoitzak bere bidea modu
independentean egin behar duenik. “Ere-
muak behar genituen, baina permea-
bleak, besteekin nahasteko modukoak.
Ondokoari begira ere gauza asko ikasten
dira, eta idea berriak sortu. Horregatik
da garrantzitsua eremu informalagoak
ere izatea”. Sormena kolektiboan ulertzen
dutela dio Gantzarainek: “Oso zabaldua
dago bakardadean sortzen duen artista
jenioaren ideia hori. Baina funtsean, sor-
tzen dena beti da kolektiboa: besterekin
ikasten duzu, besteengandik jaso, eta bes-
teen begiradak eraginda eman. Komunita-
tean egiten da lan hemen, eta joan-etorri
horretan ontzen da norberaren lana”.

NAZIONALA, EUSKARAZ ETA AZPEITITIK

“Nazionala izateko Donostiatik egin behar
da? Bilbotik? Azpeitian gaude, baina gu-
retzat proiektu nazionala da hau”. Hala
esan du Bengoetxeak galdetu diogunean
Dinamoak nori edo nora begira egiten
duen lan. Ez dute uste afera gatazkatsua

denik: leku askotako sortzaileak hurbildu
dira Dinamoia, baina gehien-gehienak
eskualdekoak dira. Eta gainera, emanal-
di irekien bidez, edo bertan egiten duten
harreman sarearen bidez, bertako kultur
mugimendua elikatzen dute. “Azpeiti-
tik Euskal Herri osora nahi dugu
eraman; eta alderantziz, Eus-
kal Herri osotik Azpeitira
ekarri. Hartu-emanerako
espazioa da hau, baita
zentzu horretan ere”.

Hiriburuetan dau-
den kultur sorkuntza-
rako eremuekin alde-
ratuta, bada lerro pare
bat merezi dituen beste
bereizgarri bat: Dinamoian
euskara hutsean aritzen dira.
Bai proiektuak eta formakuntza
saioak euskaraz direlako; baita komuni-
kazioa –kanpora begirakoa zein barne-
koa– euskaraz delako ere. Erabaki politi-
koa dela diote, baina halaber, naturalizatu
nahi dutena, etengabe azpimarratu edo
justifikatzeko premiarik gabe.

EGITEKO MODU BATEN AZKEN FRUITUA

Orain Dinamoia esaten dioten espazioa
2008an eraiki zuten kultur taldeentzako
bulegoak bertan jartzeko. Krisi ekono-
mikoak harrapatu zuen, eta beste hain-
beste bezala, bertan behera geratu zen
proiektua. Hutsik egon da Dinamoia ize-
narekin zabaldu duten arte. Baina zerga-
tik dago halako ekimen bat udal eraikin
batean? Zergatik ez *co-working* espazio
bat? Edo etxebizitzak? Zergatik erabaki

dute Azpeitian kultura sortzaileek dituz-
ten premiei erreparatzea? Kasualitatea
izan zitekeen, baina ez da. Jende askoren
lana dago atzean; eta ibilbide luzea.

Bi talde edo eragile aipatu behar dira
ulertzeko. Lehen, Azpeitiko Kultur
Mahaia. 2006an hasi zen mar-
txan, herriko kultur eragile
gehienak batzen zituen
batzar gisa. Pixkanaka,
eta pausoz pauso, gai
izan dira udalarekin
harremanak izan, eta
proposamenak egi-
nez, kultur politiketan
zeresana izateko. Kul-
turaz kooperatiba da bi-
garrena: Azpeitiko Kultur
Mahaiak sortu zuen 2011n,
herriko kultur baliabideen ku-

deaketan jarrera aktiboagoa izan ahal
izateko. Udalarekin elkarlanean, Kultur
Mahaiak eta Kulturaz kooperatibak ku-
deatzen dute Dinamoia. Baina ez Dinamoia
bakarrik. 2011z geroztik, herriko plazan
dagoen San Agustin kulturunea eurek
kudeatzen dute; eta baita Dinamoari pe-
ga-pega eginda dagoen Soreasu Antzokia
ere, 2014tik.

Azpeitiko Udalak ere badu bere meri-
tua. Kultur Mahaiak herritarren zati handi
bat ordezkatzeko du, eta Udalak ezinbes-
tean aitortu behar izan dio zilegitasuna.
Baina gaur gaurkoz, eta hainbat urteko
martxaren ondoren, zer pentsatua ema-
tekoa da Azpeitiko Udalaren kultur po-
litikaren funtsa: kultur mugimenduari
tresnak eta erabakimena ematen dizkio,
udal baliabideak kudeatzeko. Elementu

Ikusgarria

Kultur mahaiaren erronken artean dago artistei ikusgarritasuna ematea. Dinamoaren azpi-proiektu bat arduratzen da horretaz: DAPA. Sarerako ikus-entzunezko saioa da, ale bakoitzean sortzaile (edo talde) baten lanaren berri ematen duena. Bigarren denboraldia hasi berri dute. Ibrahima Balde eta Amets Arzallus Madrilen nola elkartzen diren jaso dute, *Miñan* liburua idazteko biek egin duten bidea kontatuz.



horiek guztiek eta hamalau urteko bideak ondu dute Dinamoaz sortzeko behar zen ekosistema. “Egiteko modu baten azken fruitua da. Azkena, oraingoz”.

EPELTASUN PITTIN BAT

Bengoetxeak eta Gantzarainek orduak pasa ditzakete Dinamoaz solasean. Ia prozesu osoa ezagutu dute, ideiarene sorreratik gaur eguneraino; bere aldaketa, beheraldi, zalanza, poz eta guzti. Dinamoaz baloratu behar dutenak ez dira haiek, ordea. Hasitako bidea epaitzeko lagin aproposena espazioa erabili duten artisten testigantza da. Azken finean, horretarako sortu da Dinamo: haien lan prozesua errazteko.

Horman Poster kolektiboa da espazioa erabili duen lehen taldeetako bat. *Antigone edo ezetzaren beharra* izeneko lan eszenikoaren entseguak egin dituzte, *gorputzaren eremua* probestuta. Bi egonalditan banatuta, bost astez aritu dira bertan. Matxalen De Pedro kolektiboko kideak dioenez, haien gisako lanak egiteko baliabide bereziak behar dira: eszenatoki profesionalen tamaina bereko eremuak, argiztapena lantzeko aukera, aldagela eta dutzak gertu... Dinamoak hori guztia eskaini die, eta bertan egin dituzte lanaren bi fase garrantzitsuenak: hasiera eta bukaera.

Arte merkatuak emaitzarekiko obesioa eta artistaren indibidualtasuna inposatzen dituela dio, eta beharrezkoak direla inertzia horiei aurre egingo dieten babeslekuak. Ez du uste Dinamo, bere horretan, logika horrekin hausteko gai izango denik; baina bai norabide egokian egiten

duela tira. “Eskaini diguten hurbiltasuna eta malgutasuna garrantzitsuak dira, hiperr-instituzionalizazio garaiotan, epeltasun pittin bat sentitzeko”.

MUSIKAK AURKITU DU BERE ZIRRIKUTUA

Soinuaren eremua izango dena ez dago martxan oraindik. Musikariek ez dute haientzat egokitutako leku edo baliabiderik. Eta hala ere, soinua eta irudia uztartzen dituen zuzeneko Dinamoan prestatzeko modua aurkitu dute Testurako kideek. Ander Mujika, Felix Buff eta Johannes Buff arduratzen dira soinuaz; eta Maialen Belaustegik osatzen du irudia, proiektoreak lagunduta. Beste disziplina batzuetarako diseinatutako eremuak erabili badituzte ere, oso baliagarria izan zaiela dio Mujikak: “Derrigorrezkoa genuen sormen egonaldi intentsibo bat egitea, gure bizi eta lan egoerak ez duelako ahalbidetzen beste modu batera lan egitea. Dinamo oso aproposa izan da horretarako”.

Ezohiko esperientzia izan da Elgoibar-ko musikariarentzat: batetik, ez dagoelako ohituta modu horretan lan egitera, are gutxiago paraleloan beste lan batzuetan ari diren artistekin eremua konpartituz; eta, bestetik, kudeatzaileek errespetuz eta gertutasunez tratatu dituztelako. “Pena da, baina normalean ez da horrela izaten”.

EREMU BAT NORBERARENA

Dinamoaz erabiltzen ari da Nerea Loiola idazlea ere. Ez, ordea, proiektu bat aurkeztu duelako, Hitzaren Eskolan izen eman zuelako baizik. Itxialdiak eten duen

arte, astean bitan jaso ditu eskolak bertan: asteazkenero eta larunbatero. Hila-betero irakasle desberdin batek gidatuta, hitzaren ertz askotarikoetan ari dira arakatzen. Formatua oso erakargarria egin zitzaizkion eman zuen izena Loiolak, baina baita eskuartean proiektu literario bat zuelako ere. Ez da damutzen: “Idazlearen bakardadeak zama handia har dezake une batzuetan, eta ezinbestekoa da pertsona sare bat izatea, antzeko kezak eta bizipenak izango dituenen”. Komunitate bateko kide sentitzen lagundu diola dio. Dinamoaz galdetuta aldiz, eremu seguru dela azpimarratu du. “Hala da, bai sortzaile gisa, baita emakume bezala ere. Aske sentitzen naiz bertan, epairik jasoko ez dudaren lasaitasunarekin”. Ezinbesteko abiapuntua da hori.

TOKIAN TOKIKOA

Ez Dinamoak bakarrik; Azpeitian Kultur Mahaia sortu zenetik hona egin duten bideak makina bat eragileren interesa piztu du. Herri askotako ordezkariak etorri zaizkie bisitan, eta haiek ere, dozenaka hitzaldi eskaini dituzte han eta hemen. Ez dute uste, oster, Azpeitiko eredu bere horretan esportatzeko moduko denik. “Hemen halaxe aterata da, herri honek eta bertako kulturgileek dituzten ezaugarriengatik; baina kultur politikak tokian tokikoa behar du izan”. Asko jota, egiteko modua ei da beste leku batzuetara eramane daitekeena: kultur mugimendua elkartu eta baliabide publikoak kudeatzeko eskubidea aldarrikatzea. “Baina hori modu askotara egin daiteke, ez derrigor guk egin dugun bezala”. ●



LIBURUA

Ama bakarrik ez



ANDONI CANELLADA / FOKU

AI AMA! ARANTXA ITURBE

ALBERDANIA, 1999

ARITZ GALARRAGA


Euri asko egin du, aldaketa klimatiko gorabehera, *Zergatik panpox* aitzindari hartatik (Arantxa Urretabizkaia, 1979) *Amek ez dute* goratu honetara (Katixa Agirre, 2018). 40 urte. Baina amatasunarena da gai bat zeharkatu duena alderik alde euskarazko literatura garaikidea. Eta ez dena agortu, inondik inora, ez modaz pasa; Agirrerren azken eleberriaren arrakasta, bertako nahiz kanpoko, horren adibide. Nago, gainera, literaturak amatasunaren errepresentazio gertukoago, konplexuago, askotarikoago bat islatu duen neurrian, interesa ere ulergarriki areagotu egin dela.

Arantxa Iturberen liburu bat, ez kritikak destakatuena, kokatuko nuke bide horretan mugarri, *Ai, ama!* saiake-

ra, bere laburrean mamitsu, inspiragarri, gogo irekitzailea baita. Noski, ez du eskaintzen amatasunaren irudikapen ohikoa –“Nik ez dut eguneko hogeita lau ordutan ama izan nahi”–, ez lañoa –“Amaren zorion osoaren zati bat baino ez du asetzen umearen zorionak”–, ez onbera –“Umea ez da niretzat bizitzeko arrazoia, ni naiz bera bizitzearren arrazoia, eta horren ardura nirea da”–. Hitz egiten du beldurrez, zalantzez, minez, erruduntasunez. Ez du amatasuna gurtzen, goresten, idealizatzen –“Aukera bat delako hau ere, beste askoren artean”–. Hausten du, errotik, erraietatik, emakume-ama binomioa: “Ama den emakumea, ama beste ezer ez izatera mugatzen duelako”. Eta uzten du, azkenerrako, aztarna askatzaile bat: “Ez dugu

denok berdin ulertzen amatasuna. Ez eta bizi ere”.

Batzuetan iruditu zait arima biki bat –“gorroto ditut munduko parke guztiak”, “txiki-txikitan ez dira politak”–. Baina bikiago izango ditu seguru Marie Darrieussecq –“Lehen bi hilabeteetan erdizka baino ez naiz izan munduan, esaten zidatena erdizka baino ulertzen ez nuela, jendea erdizka ikusiz, liburuak gaizki irakurriz”– edota Annie Ernaux –“Bi urtetan, bizitzaren lorean, nire bizitzako askatasun guztia haurtxoak arratsaldean egiten duen lo kuluxkaren suspentsera mugatu da”–. “Ama bakarrik ez naizela aldarrikatzeko beharrak bultzatu nau aurreko guztia idaztera”, dio halako batean Iturbek. Ama eta idazle, gutxienez, biak dira eskergarri hemen. ●



MUSIKA

Barneko arantzen doinuak

ATEAK
SAIOA

AUTOEKOIZPENA, 2019



 JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Saioaren kanta bat entzun eta berehala nabari da bera dela, bere kantatzeko eta kanta egiteko modu bereziarengatik. Bere ahots leuna eta hautsia. Bere barne mundua, gure barne munduaren ispilua izan daitekeena, gure barrura begiratzeko modu bat.

Saioa Garin Legorretako bakarlariaren laugarren diskoa ederra da. Beste zenbait istorio txiki, samur, hunkigarri eta gordin kontatzen ditu kantetan, baina *Natura* (2013), *Matrioska Heart* (2008) eta *Particular Land* (2007) aurreko diskoekin alderatuta, beste ukitu eta zertzelada batzuekin jantzi ditu kanta berriak. Horretarako, es-timagarria izan da lagun hauen parte hartzea: Joseba Irazoki (gitarra elektrikoa, lapsteela, armonika, banjoa eta organ pedala), Felix Buff (bateria) eta Iñaki De Lucas (grabazioa, nahasketak eta masterizazioa). Saioak, abesteaz gain, gitarra akustikoa eta elektrikoa erabili ditu grabazio saioetan. Denen artean ederki jakin dute gauzatzen kanta bakoitzak behar zuena, eta ezin hobeto jantzi dituzte kanta guztiak, dotore eta fin, soberan egon litezkeen gehiegizko apaingarriak gabe.

Kantak lasaiak dira, baina indartsuagoak eta biziagoak

diren pasarte batzuk ere badaude. Kanten bidez, barneko arantzak sentitzen dira, samina, kezakak, zalantzak, galderak, beldurrak, desioak: "Ebaki latzenaren atarian, ni bakarrik, ekaitz gupidagabearen gaitza" (*Ekaitz gupidagabearen gaitza*), "Ezezaguna den erantzunakin aurrez-aurrez ezin jarri, ixiltzen duzunak, jaten duzunak oihukatzen du: maitate nahi dut!" (*Oihukatzen du*). Harremanen gazi-gezak: "Ta zu, aldiz, lubakian gordeta, belarriak estalirik eta soldaduz babesturik zure egi finkoei eutsiz" (*Bakoitzak bereari*), "Elkar begira gaude elkar ulertu gabe, gure hitzen esanahiak galbaheen mende daude" (*Galbaheak*).

Kantek, dena den, tristura eta atsekabea baino gehiago, baikortasun pixka bat transmititzen dute –"Biziminari eutsi ala trixturaz gaixotu, bizitza motza da hegoak ximurtzen uzteko" (*Bizimina*)–, eta horretarako asko laguntzen dute kantetan dauden melodia politak eta musika tresnekin egin dituzten moldaketek.

Saioaren *Ateak* diskoa Interneteko Bandcamp plataforman entzun eta eskura daiteke: www.saioa.bandcamp.com helbidean. ●



DANI BLANCO



Historia egitea

✂ XALBA RAMIREZ 📷 AMAIA OCA

Derrigortutako konfinamenduaren hasieraren aurreko asteburuan izan zen Sixty Sexersen lehen eta azken kontzertua, etxean, Beran, Katakun, argi ez balego. Itzulera iragarri eta iragarri gabeko kontzertu bakarra izan da. Eta azkenean gainera, tamalez, egin ahal izan duten bakarra. Pandemia 1, eszena 0.

Aretoa beteta, ahoz aho iragarri arren ez zen sekretua. Beste hiru data zituzten beratarrek, eta guztietan zegoen *Sarrerak Agortuta* afixa paratuta. Psylocibekoa 10 minutu eskasetan. *Online*-aren desabantailak kanpoan geratu direnzentzat.

Eta zer urrun dirudien, jendez eta zigarroz beteta, eta bolumen gehiegi eta izerdi sobera dagoen tabernan jotako kontzertua gogoratzeak. Luzaroan ez da errepikatuko, denontzat tamalez. *Iluntze berri baten bila* diskoko kantekin astindu zen gehien aretoa kontzertuko lehen hiru kantetan. Emozio asko ateratzeko zain.

2000. hamarkadan historia egin zuen Sixty Sexers taldeak. Nerabe, orduan tximaluzeak –orain ba tira, pixka bat soilduagoak, zer egingo diogu–, rock and roll amerikar eder eta bortitza egiten zuten. Handik atera da orain euskal eszenako pieza garrantzitsuenetakoa den Joseba B. Lenoir kosmikoa. Baina ez zen izar bakarrekotako taldea, eta horren lekuko Baleztenarik gabe egin zuten *Zakillers spin off* zoragarria, adibidez.

Baina zergatik diot historia egin zuela? Ez zen izan rock and rolla euskaraz egiten zuen lehen taldea –Koskakoeke progresiboa egiten zuten frankismoan!–. Ez zen izan nik zer dakit zer disko zerrendatan gehien saldutakoen artean. Ezta kontzertu gehien emandakoak, edo anekdota gehien bildutakoak. Ez ziren ziurrenik ezertan izan lehenak.

Lerro hauetan askotan ekarri dugun Pelax taldea aritu zen euren aurretik. Eta esperotako mailarekin egin zuten astin-

SIXTY SEXERS

NOIZ: martxoak 7

NON: Berako Katakun

dua, Sixtykoek baino errodate handiagoarekin. Baina Pelaxekoak hor bazeuden, besteak beste, Sixtykoak lehenago hor egon zirelako da. Nerabe zirenean miretsi zituztelako euskal rockero gazte hauek dira eurek orain rockero gazteak –Pelaxeko Ozaetaren lehen baxua Sixtyko Xikerrek erabiltzen zuen bera izateraino, adibidez–.

Esan nahi dut, historia egiteak ez du zertan izan munduan lehenengo aldiz zerbait egitea. Historia egiteko gure manera ere egon daiteke. Eta historia egitea izan daiteke lerro batean puntu bat egitea.

Eta izan gabe futbol zelai bat bete duen lehen taldea, izan zaitezke musika maite duen gazte bat egotearen arrazoia. Inspirazio gisa aritzea. Ale bat gehiago izatea, ez besterik.

Urte askoan beraz Sixtyz gozatu genuen guztiak! “Berriz galdetuko diat: *Are you ready?*!” ●



Hitz gezidunak

Gaia: Gipuzkoako idazleak

1

2

3

4

FERNANDO MIGUEL AGIRRE

MIKEL LOPEZ

AGIRRE GABIRIA

BATISTE EZEIZA

BEARDIA
ZEREGINIK,
LANIK

HAMAR GEHI
SEI
HURBIL

URTU,
URTZERA
BEHARTU
ATZIZKI DES-
TINATIBOA

UKAMEN
... ROZAS
(ARGAZKI 2)

LUMA TXIKI
BERE

EGOKI, ERARA
... URETAN BIZI
DENA

... ATERA,
SUMINDU
FASEA

LEGEEN
MULTZO
MEHATXU

HARAGITA-
RAKO
ABERE
ITSASALDI

NAFARROAKO
HERRIA
ZUBEROAKO
UDALERRIA

... EGAÑA
(ARGAZKI 3)
OTAMEN

DA, HAIEI
(ALDERAN-
TZIZ)
... RODRIGUEZ
(ARGAZKI 4)

NORENTZAT
ATZIZKIA
KOIPE

DAGOENEZ
HARAGIAREN
MINTZA

BAGA, BIGA, ...
IPURTZULO

ZENBAKI
IRRACIONALA
OXIGENOA

HELBURUA,
XEDEA
IDAZTEKO
GAITASUN

GARAIAK
ERDI HITZ-
ELKARKETAN

ABANTZU,
KASIK

EZKER
EREITEKO
EKINTZA

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	6	1	7			5		3
							4	7
					9			2
1				9		7	3	6
6	7	9		8				4
2		7						
9	4							
3		6			5	4	9	

5x5

ZECHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Pilotan jokatzeko tresnak
2. Gura, desira
3. Harkoskor
4. Zatia, puska
5. Itxurak

EBAZPENAK

1. PALAK
2. APETA
3. LEGAR
4. ATALA
5. KARAK

8	6	4	5	2	7	9	1	3
1	7	2	3	8	5	6	4	9
5	9	7	4	1	3	6	2	8
4	3	8	6	7	2	1	5	9
6	3	4	7	1	8	5	2	9
9	6	5	8	4	7	3	2	1
7	5	3	4	6	8	2	1	9
8	6	9	3	5	1	7	2	4
4	6	1	7	2	9	5	8	3

			V	Z	T	N	I	E	R	E	
			I	T	R	E	K	Z	E		
			N	E	M	E	I	D	A	I	
K	A	O	A	R	A	V	U	T	I	V	G
I	P		V	G	I	H		Z	E	N	D
T	A		Z	T	Z	V	I	E		E	T
E	T		V	R	A	V	E	J	V	V	G
N	E		N	E	A	U	R	O	S	I	A
O			E		I	A	V	K	A	R	A
					O	X	T	V	M	U	
					R	I	R	A	H		
					U		U	H	Z		

Arnaitz Fernandez

METEREOLOGIA
DIBULGATZAILEA



ZERURA BEGIRA

“Egonezin handiko pertsona naiz, beti zerura begira ibiltzen dena. Txikitan, elurtea zenean, leiho parean jartzen nintzen, eta nire buruari galderak egiten nizkion. Zergatik gertatzen da hau? Zergatik erortzen da tximista? Zer dago horren atzean? Beticidanik egin dizkiot nire buruari zientziari, astronomiari eta meteorologiari buruzko galderak, eta horregatik erabaki nuen fisika ikastea. Orain ari naiz karrera bukatzen, baina beti izan naiz oso autodidakta, eta, nire kabuz bada ere, jarraituko dut ikasten. Eta batez ere, ikasitakoa gainerakoei azaltzea gustatzen zait. Telebistan agertu ohi naiz, dibulgazio lanetan. Etorkizunean ere halako lanetan ibiltzea gustatuko litzaidake, meteorologia dibulgatzaile gisara”.

“Igogailuan, eguraldiaz galdetzen didatenean, gogoa izaten dut isobara mapa ateratzeko”

Interes propiotik, zeruan ikusten zuena ulertu nahian iritsi zen Arnaitz Fernandez (Iruñea, 1995) meteorologiaren mundura. Geroztik, hangoen eta hemengoan kezkei erantzuten aritzen da, igogailuan nola sare sozialetan. Ikasten duena azaltzea du gogokoen, dibulgazioa, eta horretan dihardu telebista eta irrati saioetan. Pasioaz harago, meteorologiaren garrantziaz eta balioaz ohartarazi nahi izaten du.

ANDER PEREZ JOSU SANTESTEBAN

Zergatik hitz egiten dugu eguraldiaz zer esan ez dakigunean?

Meteorologiak denongan duelako eragina. Nekazariarentzat, adibidez, oso garrantzitsua da euria egingo duen ala ez jakitea. Bestetik, polemikoa izan daitekeen beste zeozerrri buruz ez hitz egiteagatik. Denok dugu eguraldiarekiko interesa.

Ez dago alferrik presente telebista kate guztietan.

Eta gainera, audientzia datuak aztertuta, eguraldi saioek beti izaten dituzte oso datu onak. Eta ez bakarrik eguraldi saioek, baita bestelako dibulgazio saioek ere. Hor ikusten da oso interesatuta gaudela naturan eta gure inguruko fenomenoetan. ETBn, adibidez, eguraldi saioek dituzte datu onenatarikoak.

Jende askok eskatzen dizu eguraldiaren iragarpena?

Bai. Igogailuan, eguraldiaz galdetzen didatenean, gogoa izaten dut isobara mapa bat atera eta azaltzen has-teko. Oso galdera tipikoa izaten da, baina gustura erantzuten dut, eta

batzuetan, uste dut azalpen gehiegi ere ematen dudala. Pasioa duzunean, eguneroko elkarrizketetan ere ikusten da hori. Eta interes hori kutsatzen jakitea artea da. Niri asko gustatzen zait dibulgazio lan hori, saiatzen naiz ingurukoek ere interesa eduki dezaten. Ekuazioetatik urrunduta gauzak beste modu batean kontatzea, hori da dibulgazioa, eta asko gustatzen zait.

Zer erantzuten diezu, eguraldiaz galdetzen dizuten horiei?

Gaur egun, iragarpen bat egiteko, datu zientifikoetan eta eredu meteorologikoetan oinarritu behar dugu, baina egia da nekazar munduko jendeak badituela jakintza berezi batzuk, zerura begiratu eta hodei motaren arabera gutxi gorabehera zer eguraldi izan dezakegun jakiteko. Klean 24 orduz lan egiten duten horiek asko dakite horri buruz, eta polita da, baina ezin gara horretan oinarritu. Eredu meteorologikoak dira gure erreferentzia. Niri, iragarpen bat eskatzen badi-date, kontu zientifikoetan oinarrituko naiz.



"ATMOSFERA KAOTIKOA DA, NAHIZ ETA ORDENAGAILU OSO GARATUAK EDUKI, EZIN IZANGO GARA %100EKO ZIURTASUNERA IRITSI".

Garrantzi handiegia ematen diogu eguraldiari?

Batzuetan informazio gehiegi ematen da, eta prentsa arrosaren eta sentsazionalismoaren eremuan sartzen gara. Orain urte batzuk, oso famatu egin zen ziklogenesi leherkorra. Hala irakurritak beldurra ematen du, baina berez ziklogenesiak oso ohikoak dira. Kontu handia izan behar da halakotan, bestela, gauza garrantzitsu bat gertatzen denean, jendea saturatuta baldin badago, ez dio merezi duen garrantzirik emango.

Asko hobetu dira eguraldia iragartzeko metodoak?

Izugarri. Pasa den mendean konputagailuetan izandako garapena oso garrantzitsua izan zen; horri esker, atmosferan gertatzen diren fenomenoak aurreikus-teko ekuazioak sinplifikatu ahal izan ziren, eta ebatzi, zenbakitan. Bihar euria egiteko %50eko probabilitatea dagoe-la esaten dugu, eta horixe da etorkizunean ere izango dugun iragarpen mota. Atmosfera kaotikoa da, eta beraz, ezin izango gara, nahiz eta ordenagailu oso garatuak eduki, %100eko ziurtasunera iritsi.

Baina jendeak ziurtasun hori exijitzen du.

Bai, batez ere Aste Santuan, edo udan. Horregatik saiatzen naiz azaltzen, iragarpenak asko hobetu direla, pila bat, baina beti egon daitekeela akatsik, atmosfera bera horrelakoa delako, sistema kaotikoa. Zientzialari batek esan zuen tximeleta baten hegadak urakana eragin dezakeela munduaren beste puntan. Horrek laburbiltzen du atmosferaren izatea. Ezin dugu dena kontrolpean eduki.

"Eguraldia erotu da". Hala da?

Egun batetik besterako aldaketak normalak dira, batez ere gure lurraldean eta sasoi honetan. Geroz eta eguzkialdi gehiago daukagu, eta erradiazioa handiagoa denean atmosferaren oreka apurtzen da: egun batean elurra 800 metrotan, eta hurrengoan 20 gradutik gorako tenperaturak. Hori normala da. Baina ikusten ari gara nola fenomeno bortitzak gero eta maiztasun handiagoarekin –eta hemen *maiztasuna* da hitz gakoa– gertatzen ari diren. Klima aldaketarekin lotu dezakegu, baina hori ondorioztatzeko urte batzuk pasa beharko dira.

Denentzat da berdina eguraldi ona?

Ez, inondik inora, eta are gutxiago meteorologia zaleontzat. Guk mugimendua nahi izaten dugu atmosferan, beti antizikloi egoeran egotea oso aspergarria litzateke. Ekaitzak, elurteak eta halakoak izatea nahi izaten dugu, beti ere kontuan hartuta bizitzak oso garrantzitsuak direla, eta zaindu behar direla. Baina beti nahiago dugu mugimendua egotea. Niri, hori bai, gustatzen zait eguzkia hartzea; beraz, udan eguzkia egin dezala, eta neguan elurra. Niretzat eguraldi ona eguraldi aldakorra da, ekaitza, kazkabarra, tximistak dituen.

Axola al du eguraldiak konfinamendu garaian?

Adibidez, hainbat hegazkin iritsi da gura osasungintzarako materialarekin, baina ezingo lirake heldu iragarpen meteorologikorik gabe. Erakunde batzuek ere aitortu diote meteorologiari garrantzia hori, oinarritzko lanen artean sailkatuz. Guretzat ez da gehiegi aldatuko, ezin gara kalera atera, baina baliatu dezakegu egoera hau zerura begiratzeko, hodei mota ezberdinak ikusteko. Eguneroko bizitzan ez dugu izaten horretarako denborarik. Orain bai. ●



EAJk adierazi du "normaltasun berria" baino nahiago duela "normaltasun zaharra", baina hala ere paktuetarako prest agertu da

Iñigo Urkulluk kritikatu du, orain gehiegi nabaritzen dela EAren autonomia makil puntan pintxatutako mokordo bat dela, eta pixka bat disimulatzeko eskatu dio Pedro Sanchezi. ●

Koronabirusarengatik Zetak-en kontzertu batera joan gabe geratu ziren pertsonak berriz ere musika melenga hori entzuteko arriskuan daude

Autoritate musikalek uste dute zuzeneko emanaldiak berriz hasteko aukera ireki arren, Pello Reparazen proiektua berrogeialdian geratu beharko litzatekeela. ●



XXI MENDEKO HERNANIAR BAT

Petrolioaren prezioa jaisteak aukera berriak ireki ditu molotov koktelen merkatuan

Egoera baliatuz, Hernaniko startup bat gutxienez sei molotov kokteleko paketeak saltzen hasi da plataforma digital berri baten bidez. ●

OASIKO
Kronikak

▶ —————

UMORE KONFINATUA
Entzun podcasta astean behin



Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU



ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus